



## Sartu eta gozatu

Gure Zirkuak gaur zabalduko ditu ateak Arbizun. Bost egunetan izanen dira funtzioak / 2-3

ANDONI IFAZUSTABERRENA

**Zaintzaren inguruan dagoen ikuspegia zabaltzeko Mank-ek jardunaldiak antolatu ditu / 7**

**Euskaraz ez dakiten nafarrak, gazteak batik bat, euskaraz ikastera animatu dituzte / 8**

**Tornado batek Dorrao jo zuen astelehenean; hainbat kalte sortu zituen eta herritarrak beldurtu ziren / 6**

**Vuelta igandean Lizarragatik sartuko da. Afizionatuen Altsasu Probaren 94. edizioa, ate joka / 17-18**

**Xotak merezitako omenaldia egin zion Imanol Arregiri. "Hunkitu nintzen; Xota nire kluba da" / 18-19**

**Inixio Amillano Casteig bakarrizketari altsasuarra herrian mustu zen / 23**

**euskara hurbil,**  
zu urrun heltzeko

**aek**  
euskara praktikoa

**Sakana  
Itsasi euskaltegia**

EUSKARA IKASTAROAK  
Altsasun, Irurtzunen,  
Etxarri Aranatzen...

Izena emateko azken eguna:  
irailaren 21a

Gartzia Ximenez 46, behea,  
ALTSASU

sakana@oek.eus

948 468 258



**DIRULAGUNTZAK**

Sakanako Mankomunitatea,  
Hainbat Udal eta Nafarroako Gobernua



# "Etortzen dena ez da damutzen"



**IKER GALARTZA PAILAZOA**

Bost urteren ondoren, Sakanara itzuli da Gure Zirkua. Arbizun zazpi emanaldi eginen ditu, irailaren 8tik 16ra, Kattuka haur eskolaren belardian

**Iñaki Rubio Mendoza** ARBIZU

Soka finaren gainean itzulipurdika, pilotak gora eta behera jaurtiz, gorputzak bihurrituz, aurrean dituztenen barre algarak eraginez eta, batez ere, ongi pasatuz, 700 emanaldi baino gehiago eskaini dituzte Gure Zirkuko artistek, Euskal Herriko hamai-ka herri, hiri eta auzo karpa gorri-horiaren pean magia zopatzuz. Sei urte atzera sortu zuen Euskal Herriko lehen karpa ibiltaria Iker Galartza amezketarrak, "bihotz-bihotzetik". Ez zen samurra izan, baina apurka-apurka aitzindaria den proiektua osatu dutela dio, umiltasuna ardatz izanik. Arbizu izanen da hurrengo parada, eta Etxarri Aranazko Andra Mari Ikastolak antolatuko duen Nafarroa Oinezan eskutik eginen du. Zazpi emanaldi eskainiko dituzte osotara, irailaren 8tik 16ra. Kattuka haur eskolaren belardian muntatu dute zirkua. Sarrerak Gure Zirkuaeren webgunean eros daitezke jada.

**Seigarren denboraldia du aurtengo Gure Zirkua. Espero zenuten hainbesterainoko arrakasta?**

Hainbesterainokoa.. ez dakit. Zintzoa banaiz, inor ez da sartzen halako mugida batean paseotxo bat ematearren, gure malabarista Ekainek dioen gisan. Asmoa



Iker Galartza Gure Zirkuan Poxpolo pailazoa da. UTZITAKOIA

zen, eta da, noski, Euskal Herrian zehar ibili eta bertan finkatzea. Oraindik ere eskaera asko ditugu, eskualde anitz haztatu ez baditugu ere, pandemiagatik nagusiki. Geroztik, luzatu egin ditugu birak, bost bat hilabetetik zortzira, hor nonbait.

Normalean, Pazko astean hasi ohi ditugu emanaldiak. Aurten maiatzaren lehenean izan da. Azaroaren akaberan jasotzen ditugu oihalak, baina Eguberri-tako bereziak egiten ditugu, hilabeteko atsedenaldiaren ostean. **Sakanara itzuli zarete bost urteren ondoren**

Urdinen izan ginen 2018an, Iñigo Aritza Ikastolak antolatu zuen Nafarroa Oinezan eskutik. Ezezagunagoak ginen orduan, eta astebezez aritu ginen. Orain, Etxarri Aranazko Andra Mari ikastolaren eskutik egin dugu, Arbizun. Bi asteburu betetzeko apustua egin dugu, zirkua muntatzea kostatu zaigunarekin gainera... Arbizu txikia da, baina Sakanako eta inguruko herritar-rrak etortzea espero dugu.

**Zer aurkituko du ikusleak karpa barruan?**

Magia sortzen da. Badakit topikoa dirudiela, baina ez dut uste oker nabilenik. Sarrerako tunelean sartu orduko, mundu magiko batean sartzen zara. Argiak, dekoratua, zuzeneko musika... etortzen dena ez da damutzen.

**Aurtengo denboraldiak badu berezitasunik?**

Aldaketa handia egin dugu, koxka handia igo dugu joan zen ur-

**"SARRERAKO TUNELEAN SARTU ORDUKO MUNDU MAGIKO BATEAN MURGILTZEN ZARA"**

**"EZ DA GURE ASMOA INOREN ERREFERENTE IZATEA, BAINA BIDEA URRATU DUGU"**

tetik hona. Saiatzen ginen zirkuko klasiko baten estiloa jarraitzen. Konfort zona horretatik irteten saiatu gara, emanaldiak, estetikak... aldatuz. Finean, istorio bat kontatzen dugu, ez ditugu zirkuko numero klasikoak bata bestearen atzean itsasten, dena doa bilgarri baten barruan, emanaldiari zentzua emanez.

**Nola sortzen da zirku bat?**

Lan handia eginez, poliki-poliki. Zirku gehienak herentziazkoak dira, gurasoengandik seme-alabengana heldutakoak, edota izen handikoak... Gurea afizioa da, zirkuzaleak gara. Baina profesionalki ogia ateratzeko gogotik egin behar da lan, arlo guztietan bezala, noski. Pailazogintzan ere bai, numero polit eta barregarri bat egin nahi baduzu lana mardula da, entseatu, entseatu eta entseatu, ez dago besterik. Ikusten dena gozagarria bada aurretik asko egin delako da; ikusten dena lardaskeria bada, lan eskasa egon da atzean.

**Erabaki arriskatua izan zen?**

Beti da arriskatua zer edo zer berria sortzea, ez duzulako erreferentziarik; atera daiteke ondo edo gaizki. Katalunian badute beren zirkua, Circ Cric, eta oso famatu egin ziren. Horixe izan zen gure erreferentzia gertukoena, baina gurean halakorik egiteak zaila zirudien. Ez da gure asmoa inoren erreferente izatea, baina bidea urratu dugu, bihar etorriko direnei aukerak zabalduz.

**Zein da zirkua oinarri duen zutabe edo filosofia?**

Elkarbizitza da gure masta zentrala, egunerokotasuna. Elkarrekin lo egin, gosaldtu, afaldu... bizikidetzak ona izan behar du emaitza ona izan dadin. Talde anitza osatzen dugu, eta denak gara berdinak, inor ez da besteak baino gehiago. Ardatza umiltasuna da. Gerta daiteke emanaldiren batean urliak sandiak baino ikuskizun osoagoa izatea; apika, sandiak gehiago lagunduko du muntaketa lanetan, esaterako. Egiten dugun lana ere orekatua izan dadin saiatzen gara. Halaber, gure kabuz egiten dugu muntaketa eta desmuntatzea, ez dugu kanpoko



**EGOKI**  
Ventanas PVC Leihoak

www.ventanasegoki.com

Arkinoturri Industrialdea · Olazti

**GIDARIDUN LEHIO BERRIAK**  
Mugarik gabeko estetika modernoa

Erakusketa: Olite kalea 16 · Iruñea





Gure Zirkua Arbizuko Haur eskola pareko belardian.

norbait kontratatzen. Baliteke Arbizukoa guztiz horrela ez izatea, herri osoa hurbildu baitzaigu laguntzera. Eskertzekoa benetan.

#### **Gaur gaurkoz, nork osatzen duzue lantaldea?**

Akrobazia lanetan, Lander Briones, Nora Galartza, Beñat Maiz, Iraitz Lizarraga eta Ortzzi Acosta dabilta. Elene Galartza da gure trapezista, eta, Iñaki Galartza, ekilibrista. Ekain Ibagurenek jaurtitzen ditu malabarrak, pailazoa da eta gorputza bihurrituz artea egiten du Lur Aranburu kontorsionistak. Magoa ere badugu, noski: Imanol Ituño. Azkenik, Joseba Usabiaga eta biok gara pailazo eta aurkezleak. Gure seme-alabak ere badabilta hor eta hemen, gauzatxoak eginez. Zuzeneko musika jotzen dute Ibon Mendibilek eta Unai Zabaletak. Teknikoek, sarrerako langileek, krispeta saltzaileek... osatzen dute lan taldea.

#### **Dena egiten duzue elkarrekin eta elkarrentzako.**

Bai, familia gara. Egunaren 24 orduak batera ematen ditugu. Bakoitzaren arazoak guztionak dira, eta dena konpartitzen dugu. Zoragarria da. Nork bere sendia du, baina denok batzen gaituen familia da Gure Zirkua.

#### **Iñaki Odriozola Mokolorekin hasi zinen jardunean, eta bikote artistikoa osatu zenuten.**

Oso gazterik hasi ginen 17 urterekin. Edonon antzeztuko zuke-

ten bi pailazo hasiberri ginen: eskoletan, ganbaretan, elizetan, antzoki dotoreetan... hamaika tokitan egin ditugu hamaika emanaldi. Egun, bestelakoa da proposamena. Klean jarraitzen dugu, noski, baina formatu desberdin batekin, Gure Zirkuarekin.

#### **Harekin sortu zenuen Poxpolo, Gure Zirkuan segida izan duen alter egoa. Zer ematen dizu pertsonaiak?**

Sudur gorria eta izena. Horiekin nahikoa dut Iker Galartzak esanen ez lituzkeen gauzak esan ahal izateko. Marratxoak zeharkatzeko aukera ematen dit Poxpolok.

#### **Badu berezitasunik zirkua tradizionalkin batekin alderatuz?**

Ez nuke jakinen esaten. Zirkua bat zirkua bat da, bakoitza bere estilo, hizkuntza eta abarrekin. Gure diferentzia hizkuntza da, ez dela halakorik euskaraz.

#### **Zirkua kontzeptua birpentsatu duzue.**

Bai, tira... garaikeideagoak izaten saiatzen gara, baina beste konpainia batzuk ere saiatu dira garai berrietara moldatzen. Zirkua polit eta txukunak daude, gauza zoragarriak egiten dituztenak.

#### **Aurreiritzi asko ditu zirkua?**

Asko aldatu dira gauzak. Zirkua batean pentsatzean berehala datorkigu 1920. hamarkadako karpaklasiko bat, animalia exotiko eta guzti. Kontua da, ordea, egungo zirkua ez duela zerikusirik

horrekin. Are gehiago, imajinario hori guztia okerra da. Animalia exotikoen "erabilera" 60 eta 70. hamarkadetan sartu zen, animalien trafikoa hasi zenetik. Nahiko berria da hori. Hiruzpailau hamarkada iraun ditu horrek, zirkua irudia lausotuz. Lehengo ez zen hala izan, eta aurrerantzean ez da gehiago izanen.

#### **Aurreiritziak trabak sortu dizkizute?**

Bai. Oraindik ere animaliekin eta zikinkeriarekin lotzen da zirkua, eta leku askotan bizilagunak deseroso sentitu dira etxe aurrean halakorik edukitzeagatik. Dena den, berehala konturatzeko dira ez dela horrela; dena dela gozamen, alaitasuna eta txukuntasuna.

#### **Zirkua soilik haurren dako den mantira hautsi duzue?**

Bai, horretan egin dugu lan bereziki. Askotan tentazioa izaten da ordea, zirkua ere txikienei zuzentzeko mania izan baitu, bereziki telebista sortu zenetik. Espinete, Don Pinpon... umeak erakartzeko egiten da. Guk argi genuen haurrak ez genituela panpina bat ateraz erakarriko, egiten dakiguna eginez baizik, eta, noski, helduek ere gozatzeko moduko edukia sortuz. Mundu guztia etor dadila gu ikustera. Hain zuzen ere, haurren dako zirkua ikastaroak ere egin dituzue.

Haurrek berek eskatzen digute. Tailerrak egiten ditugu alde guz-

tietatik, jakinda haurren gargarako ere oso onuragarria dela. Psikomotritzitatea lantzen da, autoestimua...

#### **Artista lokalen aldeko apustua sendoa da.**

Hala da. Eta ez dira gehiegi ere. Aniztasuna da gure helburua, baita ikuskizunean ere, baina ez da erraza. Kontorsionistak bizpahiru egonen dira Euskal Herrian, eta horietako bat dugu gurekin. Hiru pilotarekin malabarrak egiten dituztenak egonen dira, ziur, baina Ekainek bezala 7 airera jaurtitzen dituztenak... Gertatu izan zaigu langileetako bat lesionatzea. Zorionez, beti izan dugu pertsona ikaragarrien laguntza. Valeria, esaterako, hilabete eta erdiz egon zen gurekin. Argentinarra da bera, eta asko ikasi genuen

### **"MARRATXOA ZEHARKATZEKO AUKERA EMATEN DIT POXPOLOK"**

### **"ORAINDIK ERE ANIMALIEKIN ETA ZIKINKERIEKIN LOTZEN DA ZIRKUA"**

berarengandik, beste ikuspuntu bat zuen. Uda honetan ere, gure lankideetako baten lagun Jaltón brasildarra izan dugu gurean, *Cirque du Soleil*-en ariturikoa, eta asko irakatsi digu. Zirkua nazioartekoa da, ezin dugu ahaztu, eta edonork erakutsi dakiok edonori.

#### **Euskal Herriko mugak zeharkatzea pentsatu duzue inoiz?**


Mundiala izanen litzateke. Euskaldunak mundu guztian zehar barreiatu gaude; pentsa Argentinara edo Idahora joanen bagina... Bertsolariak, trikitalariak... euskal kulturako diziplina askotako jendea askotan joaten da hara. Zergatik ez gu joan? Hitz potoloak dira, baina... Egunen batean posible balitz, ez dugu zalantzarik eginen.

#### **Euskal kultura ere bada zuen ardatzetako bat.**

Euskal kultura sustatzeko modu bat da Gure Zirkua. Hizkuntza, abestiak, hitz jokoak, musika... Nork esanen liguke zirkua ikuskizun batean errezeitatuko genituenik Bernart Etxepareren olerkiak. Oso gureak diren gauzak lantzen ditugu.

#### **Zer nolako balantzea egiten duzu?**

Hainbeste urteren ondoren, garrantzitsua da hasierako inozentzia puntu hori galdu ez dugula. Ezjakintasun hutsetik salto ausarta egin genuen, eta jendearen babesa ikaragarria izan zen; horrek gogorarazten digu egunero-egunero oinak lurrean eduki behar ditugula. Ezin dugu hasierako ilusio eta umiltasun hori galdu. Dena ez da urre kolorekoa, noski. Batzuetan kosta egiten da. Ez da berdina Amezketan edo Ezkerraldean aritzea. Maulen egon gara berriki, eta Tafallan izanen gara aurki. Herria, baina, horrela egiten da. Dena eskura edukiko bagenu ez ginatke hain ondo ariko agian. Hor jarri dugu gogoak: euskaraz ez dakien jendea ere gerturatzeko nahi dugu, hizkuntzaz maitemindu dadin, momentu dibertigarri eta polit bat pasaz. 700 emanaldi baino gehiago egin ditugu jada. **Luzaroan izanen dugu Gure Zirkua?** Geratzeko etorri da. Gorabeherak izanen ditugu, ziur naiz, garai oparagoak eta urriagoak. Baina Gure Zirkua martxan jarri ditugurpilak, eta aitzindaria izan da horretan. Beste proiektu asko sortuko dira, eta gu erretiroa hartuta joanen gara ondorengoek zer egiten duten ikustera. Horregatik da Gure Zirkua, gurea izan dadin eta guretzat hemen gera dadin.



ASTEKOA

ANDREA CARRILLO JUANBELTZ

## Sexua

Udatik gatoz. Oporretako beltzarana, arropa motzak eta bainujantzia, hondartza, jendea ezagutu, alkohola eta festak nonahi. Sexu harremanak sortzeko testuinguru aproposa. Azkenaldian, zorionez, geroz eta normaltasun handiagoz bizi ahal dugu sexualitatea. Halere, horrek esan nahi al du geroz eta hobeki erlazionatzen garela sexu arloan? Horretarako, hausnarketa txiki bat egin beharko genuke.

Hasteko, kontuan hartu beharra dugu begien bistakoa den genero desberdintasuna. Kulturalki nahiz sozialki ezarritako botere erlazio batek margotzen ditu emakume eta gizonen arteko erlazioak. Honek arau bezala funtzionatzen du sexu harremanen jokoan, eta horretaz kontziente izatea komeni litzateke. Hau da, gizonen plazer erdigunean jartzearekin bat, emakumearen sexualitateak ez du oraindik bere kabuz baliozkotzerik izaten, gizonaren bitartez edo honen baimenaz ez bada.

Botere horren nabarmen hutsa da emakumeoi kostatzea sexu harremani edota kontaktuari ezezkia ematea, eta geure

## HORREK ESAN NAHI AL DU GEROZ ETA HOBEBE ERLAZIONATZEN GARELA SEXU ARLOAN?

balioa desiraturik sentitzearen mende dago. Honek berak emakumeon sexu baimenaren gaineko zailtasuna bistaratzen du. Gizonek, ordea, ezetza ez jasotzearekin nahiko dute, gauza konplexuagoa izanez. Are gehiago, ez esatea

posible ez bada, baietak ez du balio. Honen harira, molde berdina aplikatu al diogu kondoiaren erabilerari? Gizonezkoen gorputzerako egina, ordea, emakumeon ardura osoa dela dirudi.

Ondorioz, gogoeta egin eta kontzientzia gehiago hartzea ditugu etxerako lan gisa. Sexuaz errespetuz gozatu nahi badugu, behintzat.

**GUTUNAK:** Karaktereak, gehienez: 1.900 (hutsuneak barne). GUAIXEK eskubidea du gutuna laburtzeko. Gutunak ezin izango dira kapituluka bidali. Gutunak asteazkena 10:00ak baino lehen bidali beharko dira erredakziora. Gutunarekin batera bidali beharrekoak: egilearen izena eta abizena, NA zenbakia, herria eta harremanetarako telefonoa. Gutuna helarazteko bideak: Foru plaza, 23 - 1., 31800 Altsasu / [gutunak@guaixe.eus](mailto:gutunak@guaixe.eus)

## HARA ZER DIEN

### Zero alternatiba

#### SAKANA TRENAREN ALDE

Abuztuko oporren akaberan bizikleta martxa jendetsu eta alaitsua egin genuen Sakana, Goierri eta Lautadako hainbat herritan barna. Helburua AHTaren zundaketak salatzea izan zen, horiek baitira AHTaren ibilbidea zehaztuko dutenak, eta, beraz, etorkizunean lanak hasteko lehen urratsa. Horregatik, behin eta berriz esaten dugu, dagoeneko, AHTaren lanak hasiak direla eta Sakanako, Goierriko eta Lautadako herritarrak hasi behar garela mugitzen eta hau guztia salatzen.

Botere ekonomiko, politiko eta komunikatiboek bere horretan dihardute. Iruñearen eta Euskal Y-ren arteko lotura merkeena, garestiena, luzeena, motzena, azkarrena, korapilatsua, ekologikoa (ekologikoa?), Benetan? Bei, hori ere badiote zein izanen ote den hausnartzen: Gasteiz ala Ezkio.

Eta guk askotan esan dugun bezeleixen, alternatibak ez dira Gasteiz edo Ezkio bakarrik. Zero alternatiba ere existitzen da, hau da, gauzak bere horretan uztea eta proiektu horretan gastatuko liritekeen dirutza publikoak beste lehentasun larriagoetara bideratzea. AHTaren kasuan, gure Zero Alternatibak esan nahi du gaurko tren biziberritu, gaurkotu eta hobetu behar dela, eta Nafarroan daukagun burdinbide bakarra behingoz bikoiztu behar dela, bidaien abiadurak eta maiztasunak igo

behar direla eta ixten ari diren geratoki, geltoki eta zerbitzuak, atzera berriz, ireki eta handitu behar dituztela. Hori guztia ingeniari talde batek eginiko azterlan mardul batean zehazturik daukagu, bideragarritasun tekniko eta ekonomikoarekin batera.

Bizi martxaren bigarren egunean elkarretaratzea egin genuen Altsasuko tren

geltokian hango langile talde batekin batera. Arrazoiak? Altsasuko tren geltokian gelditzen diren langile eskasen lanpostuak kolokan daudela, geltokia ia hutsik utzi nahi dutelako, Tafallan gertatzen ari den moduan.

Bai, bai. Hori oso tamalgarria da dudarik gabe, baina zuek zer nahiago duzue? Gasteiz ala Ezkio?



## OBJEKTIBOTIK



Ekaitz Santazilia  
@ESantazilia

Gauza bat kontatuko dizuet:

hau da #Barranka-n edo #Arañatz-en dagoen etxe armarridun bakanetakoa. Eta bai: #balkoia jartzeko #armarria zulatu dute. 🐼  
#ondarea #Nafarroa



**guaixe**  
SAKANAKO ASTEKARIA

[www.guaixe.eus](http://www.guaixe.eus)

#### GK diseinu zerbitzua:

Ainara Santiago Langarika  
[info@gkomunikazioa.eus](mailto:info@gkomunikazioa.eus)  
948 564 275 (3 luzapena)  
619 821 436  
Ainhoa Etxeberria Pikabea  
[gk@gkomunikazioa.eus](mailto:gk@gkomunikazioa.eus)  
618 640 056

#### Administrazioa:

Gema Lakuntza Lopez  
[admin@guaixe.eus](mailto:admin@guaixe.eus)

#### Zuzentzailea:

Idoia Artieda Larraza

#### Kolaboratzailea:

Iñaki Rubio Mendoza

**Lege gordailua:** NA-633/1995  
**Tirada:** 3.200

**Erredakzio burua:**  
Alfredo Alvaro Igoa  
[guaixe@guaixe.eus](mailto:guaixe@guaixe.eus)

**Erredakzioa:**  
Maider Betelu Ganboa  
[kirrolak@guaixe.eus](mailto:kirrolak@guaixe.eus)  
eta Erkuden Ruiz Barroso  
[kultura@guaixe.eus](mailto:kultura@guaixe.eus)

**Maketatzailea:**  
lune Trecet Obeso  
[maketazioa@guaixe.eus](mailto:maketazioa@guaixe.eus)

**Publizitatea:**  
Eneida Carreño Mundiñano  
[publi@guaixe.eus](mailto:publi@guaixe.eus)

**Koordinatzailea:**  
Goizeder Anton Iturralde  
[fundazioa@guaixe.eus](mailto:fundazioa@guaixe.eus)

**ARGITARATZAILEA:**  
Guaixe Fundazioa. Foru plaza 23-1.  
31800 Altsasu  
948 564 275  
618 882 675

LAGUNTZAILEAK

**Mank**  
s a k a n a

**BAZKIDEAK**



Gobierno de Navarra  
Nafarroako Gobernua

# UTZUBAR **eko** GUNEA

**UtzubarEKOgunea** hondakin kudeaketarekin lotutako hainbat zerbitzu eskeintzen dituen gunea da eta herritar, komertzio eta enpresei zabaldua dago. Mapa honetan ikusi daiteke gunearen kokapen eta antolaketa.



**07:30 - 15:00** astelehenetik ostiralera

Industrial ez arriskutsuen zabortegea: 07:00 - 13:45



**900 730 450**

[info.hondakinak@sakana-mank.eus](mailto:info.hondakinak@sakana-mank.eus)

## NON DAGO ZER?

1. Konpost planta
2. Artile biltegia
3. Inauste biltegia
4. Egur biltegia
5. Obra txiketako hondakinak
6. Industrialen zabortegea
7. Baskula
8. Berrerabilpen gela
9. Konponketa txokoa
10. Bulegoa
11. Garbigunea
12. Paper biltegia
13. Kamioi aparkalekua
14. Lixibiatuen baltsa
15. Paper prentsa
16. Konpost biltegia
17. Txatarra
18. Aparkalekua
19. Plastikogor biltegia
20. Transferentzia gunea
21. Film biltegia
22. Silo plastiko biltegia



**Mank**  
sakana

Financiado por el  
Fondo de Residuos  
Hondakinen Funtzak  
Finantzatua

Gobierno de Navarra  
Nafarroako Gobernua

Utzubarkoren Txokoa Nafarroako Hondakinen Funtzak finantziatu du. Hondakinen Funtza berezi ez diren hondakinak zabortegean isuritzeagatik ordaintzen den zerga baten bitartez jasotako diruarekin hornitzen da.



Aizkardi kaleko 6. zenbakiko etxeari teilatua hondatu zion tornadoak. Aldamenean, bordatik hondatutako teilak kentzen.



## Tornadoak Dorrao jo eta kalteak eragin zituen

Astelehen iluntzean hainbat teilatutan kalteak sortu zituen. Dorrobarrek azaldu zuten, bizitakoa "beldurgarria" izan zen, "gehiago irauten badu ez dakit zer pasako zen". Dorraoko meteorologia estazioak 103 km orduko haize boladak neurtu zituen

**Alfredo Alvaro Igoa** DORRAO

Ekaitza izan zen astelehen iluntzean Sakanan, Dorraon nolahi ahaztuko ez dutena. Arbizuko kanpinean zegoen dorrobar batek azaldu digunez, "San Pedro ermita aldetik zetorren konoa ikusi nuen, goian zabalda eta behean estua, tornadoa". Dorrobarrak badaki zertaz ari den,

Mexikon eta Amerikako Estatu Batuetan egon zenean halako makina bat tornado ikusi zituela. "Askotan ikusi nituen. Hangoak zabalagoak dira eta lurra jotzen dutenean bazterrak txietzen dituzte. Astelehenekoa txikiagoa zen, baina azkar jo zuen lurra. Dena azkar izan zen". Dorrobarrak ez zuen ikusi tor-

nadoak Dorrao jo zuela, Arbizuko kanpinetik herria ez baita ikusten.

Etxeko balkoian arropa biltzen ari zen emakumezko dorrobar batek azaldu digunez, 20:30 aldera gertatu zen. "Laino bat, ez oso handia, bueltaka ikusi nuen. Zer ote da?, galdetu nion nire buruari. Eta bat-batean herrira jaitsi

zen. Senarrak etxera sartzeko esan zidan". Emakumezkoak gaineratu duenez, "herrira jaitsi eta herriaren zati bat hartu zuen. Laino txuri bat bezalakoa zen; elurra gogoz egiten duenean ez duzu ezer ikusten. Ba, horrela. Eta haize eroak hasi ziren. Beldurgarria izan zen".

Gizonezkoa Dorraora iritsi zenean ikusi zuen Aizkardi kalean kalteak zeudela. Tornadoak eragindako haizeteek teilatua puskak pareko etxeko teilatua eta kalera bota zituen. Gure lekukoak, beste hiru lagunekin batera, Aizkardi kalera ez sartzeko zintak jarri zituzten aipatu kalean eta hara ematen dutenetan. Ondoren, Altsasuko parkeko suhiltzaileak joan ziren tornadoak Domixenekoko etxe zaharreko teilatuan eragindako kalteak egonkortu eta handik hondakinak botatzeko.

Tornadoak kalte handiagoak eragin zituen. Aizkardi kaletik 50 bat metrora dagoen borda batean, teilatua berria zuena, teila guztiak mugitu zituen. Haizeteak

mugitutako aulki batek etxe bateko pertsiana hondatu zuen, eta balkoi batean zegoen armairua lurrera bota zuen. Aizkardi kaletik 30 bat metrora dagoen baratze batean teilatuko uralita puskak agertu ziren. Hainbat etxetan teilak mugitu zituen. Asteartean konponketa eguna izan zuten Dorraon.

### Tornadoa

Urrutiko kontuak dirudite tornadoek, baina Entziako Legairen tornado batek pagadiko 40 hektarea hondatu zituen 2018ko garilaren 4an. Wikipediaren arabera, tornadoa indar handiko haize zurrumbiltoa da, kiribilean igotzen dena lurretik kumuloninbo hodei bateraino. Haren haizeek 100 eta 400 kilometro ordu arteko abiadura har dezakete, eta erpinak beherantz duen kono edo onil baten itxura du. Fenomeno atmosferiko zikloniko bortitzenetakoa da, baina hedadura txikiagoa eta iraupen laburrekoa (segundo gutxitik ordu batera).



## Artzaintzaren gorespena

Eguraldiak, euriak, baldintzatu zuen aurtengo Artzain Eguna, ezgaitasuna duten pertsonendako egokitutako aparkalekua mustu zuen. Aralar Mendi elkartearen aitortza hiru lagunendako izan zen: Felisa Goñi Ezkurra, bere lan ibilbideagatik eta Ultzamako Bentatik eskualdeko produktu eta kulturaren sustapenean egindako lanagatik; Zacarias Puente Herboso, gazta txapelketako epaimahaian gehien aritutako epaileetako bat eta, azkenik, hil

berri zen Benjamin Urdiain Mendoza sukaldaria, urtetan gazta txapelketako epaile izandakoa. Haien omenez, dantzariak aurrerakua dantzatu zuten. Ondoren, Puentek aukera baliatu zuen berak idatzitako bi liburu elkarteari oparitzeko. Artzain txakurretan abilena Antonio Alustizaren Tiki izan zen, Jesus Razkin etxarriarraren Mendi 2. izan zen. Bestalde, ardiki gisatu onena Etxarriko Gure Etxea elkarteak egin zuen, Txapel Azpi irrintarra 2. izan zen eta 5. Aralar Mendi.

# "Dimentsio anitzekoa da zaintza"

**OIHANA GALLO SAN ROMAN SAKANAKO BERDINTASUN TEKNIKARIA**

Sakanako Mankomunitateak antolatuta, 'Sakanan ZAINDU gertutik' zaintzari buruzko jardunaldiak izanen dira Lakuntzako kultur etxean hilaren 20an eta 21ean

**Eneida C. M. / Alfredo A. I. SAKANA**

Jardunaldien izenburuak hitz jolaserako aukera ematen du: Sakanan zaindu; Sakanan gertutik; zaindu gertutik.

**Nondik nora sortu dira jardunaldiak?**

Sakanako Berdintasunerako Planaren esku hartze arlo bat da bizitzaren jasangarritasunerako Itun Sozial Berria. Zaintzaren gaia lantzeko eta zaintza lanei balioa emateko beharra jasotzen du. Bestalde, lehen kontziliazioaren aldeko itunak zirenak gaur egun zaintzen aldeko itunak dira, eta Nafarroako Berdintasun Institutuaren jarri da martxan programa. Nafarroakoaz aparte, tokian tokiko itunak ere sinatzen ari dira. Mank-ek ituna lastailean sinatuko du. Aurretik garrantzitsua iruditzen zitzaigun kontzeptua jendarteratzea, zaintzaz hitz egiten dugunean zertaz ari garen definitzea. Azken finean, sensibilizatzea eta informazioa ematea da. Bestetik, zaintzen krisi batean murgilduta gaude, gaiari heltzeko premia dago, gainera, bolo-bolo dabilen gaia da.

**Behar hori badugu?**

Toki guztietan bezala, bai. Bizitzea merezi duen Sakana batean bizi nahi badugu, zaintzaren gaiari ere heldu beharko diogu, eta gaia ere ibarreko agendaren erdigunean jarri beharko genuke. Zaintzaz hitz egiten dugunean, gehienetan, adineko edo mende-kotasuna duten pertsonekin, haur txikiekin, lotzen dugu. Baina jaiotzen garenetik hiltzen garen arte, denok behar dugu momenturen batean zainduak izatea, edo zaintzea; askotan ere tokatuko zaigulako norbait zaintzea. Jaiotzen garenetik hiltzen garen arte pertsona interdependienteak gara. Horregatik, zaintzen inguruan dagoen ikuspegi hori zabaldu nahi dugu. Guretako, zaintzaren izaera polifonikoa eta kaleidoskopikoa da. Hau da, hainbat doinu izan ditu. Aldi berean, zeinek begiratzen duen



Oihana Gallo San Roman 'Sakanan ZAINDU gertutik' jardunaldien kartelarekin.

## "MUGIMENDU ETA EKONOMIA FEMINISTAK SORTUTAKO 11 GALDEREI ERANTZUN NAHI DIEGU"

edo nondik begiratzen den, zaintzak gauza bat edo bestea izanen dira. Gainera, zaintza dimentsio anitzekoa da. Modu askotatik begiratu edo ulertu daiteke zaintza, eta ikuspegi zabaldu nahi dugu (labur.eus/vfJO9).

**Zergatik aukeratu dituzue gai edo esperientzia horiek?**

Orain arte gutxi hausnartu da zainketa lanen inguruan; gizarte zientzietatik edo ekonomiatik ezagutza androzentriko batean oinarrituta gutxi landu da gai hau. Baina mugimendu feministari eta ekonomia feministari esker hasi gara horretan. Hor sortzen diren 11 galdereri erantzun nahian antolatatu ditugu jardunaldiak. Galderetako batzuk dira: zer zaindu behar dugu? Nor da zainketen erantzulea? Zeinek zaintzen gaitu? Nor zaintzen dugu? Zergatik zaintzen gaituzte? Ze espaziotan, zein he-

rritan zaindu nahi dugu?... Jardunaldian kokapen orokorraren eta zaintzak erdigunean jartzea zer den zehaztu ondoren, Euskal Herriko esperientzia esanguratsu batzuk ere ezagutuko ditugu, haietatik ikasteko. Bestalde, garrantzitsua iruditzen zitzaigun beste bi gai lantzea: batetik, hirigintza; zaintzen duten herriek, gure kasuan eskualdeak, soziologikoki nolakoak izan behar duten. Bestetik, zaintzaren pedagogiarene edo hezkuntzaren arlotik ere zer egin behar dugun zaintzaren gaia lantzeko.

**Nori dago zuzenduta?**

Irekia da. Zaintza anitza da. Horregatik, publikoa anitza izatea ere espero dugu. Egia da Sakanan Oinarrizko Gizarte Zerbitzuek eta Josefina Arregi klinika psikogeriatricoak gaia landu dutela. Sakanako Garapen Agentziaren bidez Zakan kooperatiba beste lan bat egiten ari da. Orain arte asko landu den gai honi ikuspegi zabal hori eman nahi diogu.

**Honen ondoren, zer?**

Nire iritziz, gaiaren inguruan eskualdeko hausnarketa egin beharko genuke, eta eskualde mailako esku hartze edo ekin-

tza plan bat edo zerbait egin beharko genuke. Esaterako, Arakilen gaia lantzen ari dira. Badago mugimendua eta interesa. Sakanak erabaki beharko du gai honekin zer egin. Lehen esan bezala, Nafarroako Berdintasun Institutuak sustatutako itun hori ere sinatuko dugu lastailean. Hortik ere lan programaren bat etorriko da. Eta gai honekin lotuta ere, Euskal Herriko mugimendu feministak azaroaren 20rako ere greba feminista orokorra deitu du. Be-

raz, gaiak badu segida, badugu lana.

**Izena eman behar da?**

Derrigorrezkoa da. Horretarako, 948 464 867 telefono zenbakira hots egin edo [berdintasuna@sakana-mank.eus](mailto:berdintasuna@sakana-mank.eus) e-postara idatzi daiteke. 3 urtetik gorako umeendako zaintza zerbitzua egonen da. Horretarako ere, izen ematea aurretik egin behar da, antolatzeko. Gure gomendioa eta gonbidapena da bi egunetan parte hartzea, baina egun bakarreko aukera ere badago.

## AISIALDIKO BEGIRALEEN LAN-POLTSA

### Gutxieneko baldintzak:

- Euskaraz jakitea, ahoz nahiz idatziz.
- C1 egiaztatu beharko da.
- Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako titulua edo horren baliokidea.

### Kontuan izango da:

- Gidatzeko baimena eta autoa izatea.
- Aisialdiko begirale titulua.

### Harremanetan jartzeko modua:

Interesa dutenek beren curriculum honako helbide honetara igorri beharko dute: [euskara1@sakana-mank.eus](mailto:euskara1@sakana-mank.eus)

**Mank**  
s a k a n a

# Euskara ikastea, aukera erakargarria

Bizipen berriak eman eta aukerak zabalduko dizkio euskara ikasten duenari. Euskara ikastaroetan izena emateko epea irekitzearekin batera, Nafarroako Gobernuak, toki entitateek eta euskaltegiek 'Euskara ahora' kanpaina zabaldu dute

## SAKANA

Hala nahi dutenek beraien buruak euskalduntzeko aukera dute. Euskaltegiek atea irekiak dituzte dagoeneko eta matrikulazio aldia zabalik dago. Ikastaroak aurrez aurrekoak, estentsiboak, trinkoak edo online izan daitezke. Interesa dutenei informazioa emateko ondoko webgunea gaitu da: [www.euskarakasi.nafarroa.eus](http://www.euskarakasi.nafarroa.eus) / [www.aprendeuskera.nafarroa.es](http://www.aprendeuskera.nafarroa.es). Bertan, Nafarroan euskara ikasteko ikastegi publikoei eta gizarte ekimeneko euskaltegiei buruzko informazio osoa, bai eta ikaskuntzarako laguntzak eta laguntza horiek eskaintzen dituzten herrien zerrenda ere agertzen da. Bestetik, [elaide.eus](http://elaide.eus) webguneak euskara ikasteko informazioa eta baliabideak eskaintzen ditu. Azkenik, irailean, 012 telefono bidezko arreta zerbitzuak eskaintzei eta laguntza horiei buruzko informazioa emango du, astelehenetik ostiralera, 08:00etatik 19:00etara.

Euskara ikastera animatzeko *Euskera ahora* kanpaina antolatu dute Euskarabideak, 33 toki entitatek, Sakanako Mankomunitatea barne, eta arloko hainbat eragilerekin batera. Javier Arakama Urtiaga Euskarabideko zuzendari kudeatzaileak azaldu duenez, "kanpainaren helburu



Euskara ahora kanpainako irudia. UTZITAKOA

nagusia euskaraz ez dakiten nafarrak, gazteak batik bat, euskaraz ikastera bultzatzea da. Euskara ikastera animatuz gero, euskaltegietan irakasleen eta taldekideen laguntzaz, urratsez urrats, aurrera egingen dute abentura horretan". Era berean, zuzendariak nabarmendu duenez: "batzuek euskara mundu berria izango da; beste batzuek, berriz, ez, euskararekin lehen harremana eskolako urteetan izan baitzuten, haurretan, eta orain ikaste horretan sakondu nahi dute".

Euskarazko irakaskuntzaren doakotasunerantz aurrera egiteko asmoz, herritarrek hizkuntza hori jakiteko duten eskubiarekin, Nafarroako Gobernuak handitu egin ditu helduendako banakako laguntzetara bideratutako kopuruak, bai eta euskaltegiarenak ere. Ikastaroetan matrikulatzen direnek 380 euro bitarteko dirulaguntzak lortu ahal izango dituzte, eta, gainera, laguntza horiek bateragarriak dira toki entitateek ematen dituztenekin.



## Irañetako zubia eraberrituta

Zubia urpean. Hala gelditu zen. 2021eko abenduaren 10eko uholdeen ondorioz. Uraren indarrak zubiaren lau estribuak kaltetu zituen, harriak mugitu eta tokiz kanpo utzi zituen. Kontuan izanik estribuen egitekoa zubiko hiru arku bultzadei eustea dela, Irañetako Udalak premiazko jo zuen konponketa. Lanek 65.000 euroko aurrekontua zuten.



## Altsasu Bonuak, eskuragai

Altsasuko Udalak, Altsasuko Dendarien Elkartearekin lankidetzan, kontsumoko bonuen kanpaina martxan du. Joan den astetik eskuratu doan eskuratu daitezke bonuak kultur gunean. Horiek 40 euro edo gehiagoko erosketetan 10 euroko deskontua egiteko aukera ematen du. Haiekin ondasunak edota zerbitzuak erosteko aukera irailaren 30era arte dago.

## Merkataritza kalean

*Megadeskontuak* leloa hartuta, Altsasuko Dendarien Elkarteak merkataritza kalera atera eta mauka ederrak eskaintzen ari da larunbatera arte. Hamahiru arropa eta oinetako dendek beraien eskaintzak espalora atera dituzte. Beraz, hala nahi duenak, gustuko arropa edo oinetakoak prezio merkeagoan eskura ditzake Altsasuko kaleetan.



EGURDIAIN  
sutarako egurra

608 57 03 57

kaxeta  
LIBURIDENDA

Ikas material guztia dugu zure eskura!

www.kaxeta.net

628 542 519 | 948 460 477

## Ruben Goñi Urrozek ardura berria izanen du gobernuan

Maria Chivite Navascues buru duen Nafarroako Gobernu berriak 13 kontseilari ditu, eta bere egitura zehaztu du dagoeneko. Ruben Goñi Urroz etxeberriarra Landa Garapeneko zuzendari nagusia da, Landa Garapen eta Ingurumen Departamentuan. Goñik Jose M<sup>a</sup> Aierdi Fernandez de Barrena kontseilariaren lantaldeko kide izaten segitzen du.



# AURRERA IRAILAREKIN!



13 Udaberri Loredenda  
Akeita kafetegia  
Allianz aseguruak  
Arkatz Liburu-denda  
Arkupe altzariak  
Asensio Moda  
Bengoetxea oinetakoak  
Cristina janari-denda  
Deportes Lezea kirolak  
Ekin Moda  
Gautxori Taberna  
Gertu Sakana  
Hiruon harategia  
Iker Kirolak

Inmobiliaria Agurain  
Iulene  
Izara Cortina-Stor  
Joselen Moda  
Katuka  
Mari Carmen  
Marigorri  
ML Moda gizonezkoa  
ML Moda emakumezkoa  
Next Movil  
Larka  
Lasa Kirolak  
Liburunda  
Lorea loredenda eta belardenda

Pinpilinpauxa  
Ramos Etxea  
Ramos elektrizitatea  
Santa Cruz altzariak  
Santa Cruz sukaldeak  
Sakana optika  
Sarabe belardenda  
Sare oinetakoak  
Scooby Txakurren ile-apainketa  
Sorkunde harategia  
Tu Tienda Especial  
Xagu Informatika  
Txartel  
Txikitxo

**ESKOLA ITZULERA ALTSASUKO  
MERKATARITZAREKIN**



Nafarroako Gobernuak diruz lagundutako jarduketa

# Kurtso berria pentsiodunen mugimenduarendako

Pentsiodunen mugimendua duela 69 hilabetetik astero egiten ari diren elkarretaratzei eta mobilizazioei berrekin die. Pentsiodun gehienek oinarritzko behar materialak asebetetzeko neurriak eskatu dizkiete gobernu eta alderdiei

## ALTSASU

Udako oporren ondoren, Sakanako Pentsiodunen Mugimenduko kideak astelehenetako kontzentrazioei berrekin zieten. Bi eskaera nabarmendu zituzten mugimenduko kideek ikasturteko aurreneko bilkuran. Batetik, "hurrengo gobernu zentralaren berehalako konpromisoa izan dadila 1.080 euroko gutxieneko pentsioa, 2023ko ilbeltzera arteko atzeraeraginezko ondorioekin". Bestetik, Nafarroako Gobernuari zuzendutako eskaera egin zuten: "hurrengo aurrekontuetan pentsiodunen gutxieneko diru sarrerak 1.080 eurora arte osatzeko funtsak ziurtatzea". Azken helburu hori lortzeko "lanean jarraitzen dugu, hainbat gizarte mugimendurekin harremanetan, helburu horretan lagunduko duen gizarte ekimen bat antolatzeko asmoz".

Jakina, pentsiodunen mugimenduak planteatutako gainerrako eskaerak ez dituzte ahaztu



Ikasturtea udaletxe parean bilkura eginez hasi zuen pentsiodunen mugimenduak.

eta haiek defendatzen jarraituko dute hasi berri den ikasturtean. Izan ere, "pentsiodunen arazoak ez dira desagertu; bizitzaren kostuaren igoera gure bizi baldintzak izugarri okertzen ari da". Gaineratu dutenez, prezioen

igoeraren ondorioz pentsiodunek hainbat zailtasun dituzte: elikadura osasuntsua eta botikak eskuratzea, mugikortasuna eta tenperatura egokia bermatuko duten bizi baldintza duinak izatea edota zerbitzu soziosanita-

rioretara, mendekotasunaren arretarako zerbitzuetara eta abarretara iristea. Azaldu dutenez, "urteko Kontsumo Prezioen Indizea %5ekoa da, 2023koa %6,2koa". Datua eman dute: "Nafarroan 51.306 pertsona, emakumezkoak bereziki, 1.080 eurotik beherako diru sarera dituzte". Eta galdera egin dute: "nola mantendu eta hobetu daitezke gure bizi baldintzak gutxieneko pentsioa 743 eurokoa bada?"

Pentsiodunen mugimenduko kideak kexu dira, "aldi berean, bankuak, enpresa elektrikoek eta ez finantzetako enpresa handiek mozkinen errekorra gainditu dutelako". Ziurtatu dutenez, "aberastasunaren banaketa desberdinak jarraitzen du; soldata eta pentsioak murrizten duena eta enpresa handien irabaziak hobetzeko. Horren aurrean, bai ala bai, Gobernu berriak zerbait egin beharko luke".

Mugimenduko kideak gogorazten dute hauteskundeen aurretik alderdiei haien hauteskunde programetan oinarritzko aldarrikapenak sartzeko eskatu zieten. "Hauteskunde ondoan, berriro ere, gure proposamenak gobernu programan jaso daitezke defendatzen segituko dugu".

Altsasun aldarrikapen horiek astelehen eguerditan plazaratu dituzte. Baina horretarako tokia txandaka aldatzen dute. Astelehen honetan udaletxe parean egon ziren, hurrengoan berriz, Zumalakarregi plazan.



Benjamin Urdiain Mendoza. ARTXIBOA

## Benjamin Urdiain Mendoza sukaldaria hil da

Ezohiko uda da Ziordian. Ezohiko Artzain Eguna izan zen Uhar-te Arakilen. Benjamin Urdiain Mendoza falta da. Sukaldari ezaguna agorrilaren 14an hil zen. Txikitatik sukaldaria izan nahi zuen haur hark, Madrilgo Zalacain jatetxean lanean zela, estatuan hiru Michelin Izar eskuratuko zituen aurreneko sukaldaria izatera iritsi zen. Beti ere, jakiak ongi elaboratuz.

## DUELA 25 URTE...



## Gastronomia elkarte berria Altsasun

Bi urteko prozesuaren ondoren, izen bereko plazan Amandrea elkarteak mustu zuten. 80 bazkide izan ziren elkarte sortu zutenak, eta 42 milioi pezetako inbertsioa eskatu zuten (252.425,1 euro). Elkartearen sartu eta ateratzeko txartel magnetikoa zuten bazkideek. Mustutze eguneko ekitaldira joan zirenek Aitzindari dantza taldearen emanaldia ikusi, apaizaren euskarazko bedekapena eta Loli Leoz lehendakariaren esanak entzuteko aukera izan zuten, baita elkarte bisitatze ere.



AHT GELDITU ELKARLANA

## Zundaketen kontrako martxa

Abiadura Handiko Tren (AHT) egitasmoaren kontra dauden hainbat erakunden bizikleta martxa antolatu zuten agorrileko azken asteburuan. Haren bidez, AHTren trazadura zehazteko egin asmo diren 52 zundaketak salatu eta haiek geldiarazteko exijitu zuten. Bestalde, zundaketen berri dutenei udalari jakinarazi eta 656 711 130 telefonora hots egiteko eskatu diete.



Imanol Azpiroz Armendariz. ARTXIBOA

## Azpiroren heriotzak dolua ekarri zuen Lakuntzara

Bat-bateko heriotza izan zen Imanol Azpiroz Armendariz *Kaixerrrena*. Agorrilaren 29ko arratsaldean zabaldu zen bere heriotzaren berri Lakuntzan, herria festetan zela. Adin guztietako lakuntzarrek ezagutzen zuten, udaleko zinegotzia izateaz aparte, herriko hainbat kolektibo eta erakundetako kide izan zelako. Lakuntzarrek festetako atorrak bere omenez zintzilikatu zituzten.

# Memoria ekitaldia Otsaportilloko lezean

Jende ugari elkartu zen Otsaportilloko lezearen bueltan igandean. Sakanako udalek 1936ko estatu kolpearen ondorioz errepresaliatuak izan ziren pertsonak gogoratzeko ekitaldia antolatu zuten han

## SAKANA

Otsaportilloko lezeko ekitaldia Etxarri Aranazko Udala eta errepresaliatu senideak antolatzen hasi ziren 1980an. Hitzarmen baten ondorioz, 2017az geroztik ekitaldia Sakanako udalek antolatzen dute. Aurten Bakaiku eta Iturmendi izan dira antolatzaileak, eta haien izenean ekitaldian alkateek, Egoitz Urri-tza Lazkoz eta Imanol Arbizu Perpiña izan ziren hitza hartu zutenak. Ziurtatu zutenenez, "lezea basakeria frankistaren salaketa eta giza eskubideen defentsaren adibide garbientako bat bihurtu da. Gure presentzia eta parte hartze aktiboak, bizitza bidega-



Ekitaldian makina bat jende izan zen. UTZITAKOA

beki kendu zitzaizen haiek omentzen ditu. Eta, bide batez, memoria tokia sendotzen du; haien memoria, gure memoria". Nabarmendu zutenenez, Otsaportillo bezalako tokiak "oroimeneko lekuak dira, baina baita identitate eta balio demokratikoen transmisioak ere".

Bi alkateek gogorarazi zutenenez, "hainbat botere, memoria selektibo bat egiten eta lantzen ahalegindu dira, beren iraunkortasun eta kontrol interesen arabera", horrekin, "memoria ofizial iraunkorra sortzeko". Urritzak eta Arbizuk azaldu zutenenez, "gure kasuan, hainbat hamarkadatan, hildakoak eta haien familiak ezabatu egin dira oroitzapen ofizialetik". Hala ere, "talde minorizatu edo errepresaliatuak ofizialaz bestelako kontakizun bat eraiki" zutela azpimarratu zuten, "isiltasunaren alternatiba".

Bi alkateek esan zutenenez, "1936ko Nafarroako errepresaliatuakiko sentsibilitate politiko falta, gobernuaren eta udalen inplikazioak soilik hautsi du azken urteotan. Udalondako ohore handia izan da ekitaldia antolatzea eta esker ona eta mires-

pena adierazi nahi dizkizuegu, hainbeste denboran zehar, gizar-tearen sektore zabal baten gaitzespenaren aurrean, justizia eskariari eutsi diozuen familiei". Azaldu zutenenez, "memoria nozio politiko eta sinbolikoa da. Kolektibitate batek gogoratu behar-ko lituzkeen eta bere nortasuna osatzen laguntzen duten gertakari lotuta, bizikidetzak eta errespetu balioetan oinarrituta".

Nafarroako Gobernuak bigarren lehendakariorde eta Memoria eta Bizikidetzako, Kanpo Ekintzako eta Euskarako kontseilari Ana Ollo Hualdek esan zuenez, "oso gertuko eskualdeetan olatu inboluzionista finkatzen ari den honetan, inoiz baino beharrezkoagoa da gaur hemen egotea, biktimei laguntzen eta, batez ere, urteetan lurrez eta harriz estalita egon den memoria hori aldarrikatzen". Gaineratu zuenez, gobernuak "oraindik desagertuta dauden ia 1.000 pertsona horiek ateratzeko, identifikatzeko eta familiei bueltatzeko ahaleginean" segituko du. Horregatik, haien senideei DNA laginak emateko eskatu zien.



# FESTAK

## ETXEBERRI FESTAK

### IRAILAK 8 Ostirala

10:00 Hamarretakoa.  
12:00 Meza.  
14:00 Txupinazoa.  
14:30 Herri paellada.  
17:00 Egin Kantu Etxeberri!  
18:30 Ane Martijaren kontzertua.  
19:30 Korri, harrapatzen zaitudala!  
20:00 DJ Oixanirekin dantzaldia.  
21:00 Pintxopote eta pauso bat atzera.  
22:30 DJ Oixanirekin dantzaldia.  
03:30 Aulkien jolasa.

### IRAILAK 9 Larunbata

11:00 Etxez etxeko erronda.  
17:30 Herri kirolak.  
19:30 Korri, harrapatzen zaitudala!  
20:00 Fidelekin dantzaldia.  
22:00 Herri afaria.  
00:30 Fidelekin dantzaldia.  
04:00 Aukien jolasa.

### IRAILAK 10 Igandea

11:00 Pilota partiduak.  
14:30 Herri bazkaria.  
16:30 Duo Soni2en kontzertua.  
17:00 Aurpegi margoketa.  
19:30 Korri, harrapatzen zaitudala!  
20:00 Txokolatada eta gazta jokoa.  
20:15 Udaiazpikoa eta kamiseten zozketa.  
21:00 Gaixoa ni.

## HIRIBERRI ARAKIL FESTAK

### IRAILAK 8 Ostirala

12:30 Trikipotea.  
14:00 Herri argazkia.  
15:00 Herri bazkaria.  
16:30 Tribal, mus eta partxis txapelketa.

17:30 Haur jolasak eta kilikiak.  
20:00 Otamena.  
20:30 Trikidantz taldearekin musika.  
22:00 Zezensuzkoa.  
00:30 Trikidantz taldearekin musika.  
04:30 Gaupasa Txiteran.

### IRAILAK 9 Larunbata

11:30 Puzgarriak.  
14:30 Kuadrillen arteko bazkaria.  
16:30 Puzgarriak eta mozorroak.  
17:00 Erronda ginkana eta DJ ArdiBeltza.  
20:00 Otamena.  
20:30 Biziraun Erromeriarekin musika.  
22:00 Zezensuzkoa.  
00:30 Biziraun Erromeriarekin musika.  
02:30 Mozorro festa.  
04:30 Gaupasa Txiteran.

### IRAILAK 10 Igandea

13:00 Jarauta 69 txarangarekin kalejira.  
17:30 Txokolata eta kilikiak.  
18:00 Musika, plazan.  
18:30 Bingoa.  
20:00 Otamena.  
22:00 Zezensuzkoa.

## ZIORDIA FESTAK

### IRAILAK 8 Ostirala

09:00 Aurora, herritik zehar.  
12:00 Meza, elizan.  
13:00 Adinduen eta abesbatzaren luntxa, plazan.  
13:30 Estampas Navarras jota taldea, plazan.  
17:30 Pilota eta pala partiduak, frontoian:



**ZIORDIA** Asteazkenean, txupinazoaren ondoren, herriko adinekoei eta 2022an jaio zirenei omenaldia egin zieten Ziordiko festetan.

### Gaztetxoak:

Iñigo Otsoa - Enai Garcia de Eulate / Amets Arregi - Iker Zabala

### Afizionatuak pala:

Saioa Berekoetxea - Naroa Otxoa / Enara Magigior - Ane Kerexeta

### Afizionatuak esku pilota:

Iurgi Flores - Gontzal Azkarraga / Oier Otxoa - Josu Igoa

18:30 Kontzertua: Sabin musika, Etxaleku tabernan.

20:00 Japoniar bonbak, plazan.  
Gazta, ardoa eta kakahuete banaketa, plazan.

20:00-22:00 Alarma Morea taldearekin dantzaldia.

22:00 Zezensuzkoa, herritik zehar.  
23:00 Techno gaua: Txub, I+D, Txen eta Morti DJak, gaztetxean, gazte asanbladak antolatuta.

00:00-01:30 Chuchin Ibañez taldearekin dantzaldia, plazan.

01:30-03:30 Dj Gaztemusic, plazan.

### IRAILAK 9 Larunbata

12:00 Irurtzungo buruhandien eta erraldoien kalejira, herritik zehar.

13:00-14:00 Trasteando taldearen emanaldia.

16:00 Burunda Txirindularitza Taldearen Txirindularitza proba, herritik zehar.

19:00 Etorkizuna dantza taldearen euskal dantza emanaldia, plazan.  
Pikoteo poteoa, gaztetxean, gazte asanbladak antolatuta.

20:00 Japoniar bonbak, plazan.  
Gazta, ardoa eta kakahuete banaketa, plazan.

20:00-22:00 Eztanda Txaranga, herritik zehar.

20:00-23:00 Indarkeria matxisten prebentzioa eta sentsibilizazio gunea, plazan.

22:00 Zezensuzkoa, herritik zehar.  
00:00-03:00 Trikitiens taldearekin dantzaldia, plazan.

03:00-05:00 DJ Berix, plazan.

03:00-04:00 Happy Hour: txupitoak euro batean, gaztetxean.

Gazte asanbladak antolatuta.

### IRAILAK 10 Igandea

12:00 Haurrendako ekimena: Lopenea Ganadutegia, Txopera.

13:00 Kantuz taldearekin erromeria, herritik zehar.

18:30-19:30 Xaiborrekin diskofesta.

20:00 Japoniar bonbak, plazan.  
Gazta, ardoa eta kakahuete banaketa, plazan.

21:30 Zezensuzkoa, herritik zehar.  
21:45 Herri afaria, plazan.

20:00-00:00 Muxutruk taldearekin dantzaldia, plazan.

02:00 Azken Entzierrikoa.  
Gazte asanbladak antolatuta.

06:00 Festetan eroritakoei omenaldia.  
Gazte asanbladak antolatuta.

## ALTSASU FESTAK

### IRAILAK 13 Asteazkena

10:30 2022ko kintari harrera: Zapien janzea eta kintaren lehen argazkia, udaletxe aurrean.

11:00 Hamaiketako txarangarekin.

Altsasuko Peñak-ek eta Jai Batzordeak antolatuta.

11:30 Altsasuko 2023ko festetako kartel lehiaketaren sari banaketa, udaletxean. Kalejira txupinazora. Jai Batzordeak antolatuta

12:00 Festen eztanda handia eta errepiketa: Altsasuko txistulari,

**Hijos de Goikoetxea**  
Tel. 948 467 317 - 948 662 341 - Geltoki auzoa 11 - ALTSASU

**Patxarana egiteko anisa**

24° takoa  
28° takoa  
35° takoa  
3 litroko botilak

Geltoki auzoa 11 - Altsasu  
948 467 317 - 696 979 279 - hijosdegoikoetxea@yahoo.es

**PORTUKO**  
okidemaria

Ongi pasa festetan!

Altsasu: 948 563 822 (denda) | 948 467 153 (lantegia)  
Etxarni Aranatz: 948 460 988



**LAKUNTZA** 2022an jaiotakoei zapia jarri zieten Lakuntzako festetan.

gaita jotzaile eta erraldoiekin, udaletxearen aurrean. Ondoren, peñen kalejira. 13:00 Sakana Kantuz '23 Altsasu, udaletxearen aurrean. Eguediko kontzertua: Ecléctic Celtic Banda taldearekin, Foru plazan. Etxera topa, Herri Txokoan. Sarek antolatuta. 13:30 Elkartasun brindisa, karpan. Jai Batzordeak antolatuta. 15:00 Preso eta iheslari politikoen aldeko bazkaria, karpan. Jai Batzordeak antolatuta. Etxera bazkaria, Baratzekobide plazan. Sarek antolatuta. 16:30-20:00 Peñen kafea eta kalejira. Altsasuko Peñak-ek antolatuta. 17:30 Grand Prix txarangarekin, gaztetxeko aldapan. Jai Batzordeak antolatuta. 19:30 Buruhandiak, Foru plazan. 19:30-21:30 London Orkestrarekin dantzaldia, Foru plazan. 20:00 Peñen jaitsiera, Zumalakarregi plazatik. Altsasuko Peñak-ek antolatuta. 21:15 Peñen iristea Foru plazara. 21:30 Altsasuko zortzikoa eta Larrain dantza, Altsasuko Txistulariekin eta Etxarri gaita jotzaileekin, Foru plazan. 22:00 Zezensuzkoa, Foru plazan. 23:30-02:00 London Orkestraren dantzaldia, Foru plazan.

#### IRAILAK 14 Osteguna

JAI BATZORDEAREN KUADRILEN EGUNA  
09:30 Dianak Altsasuko

Gaiteroekin. 10:30 Udaltzaren irteera Otadiako Santo Kristo ermitara, Altsasuko Txistulariak lagunduta, udaletxetik. 11:30 Zubeztia elkarteak eskainitako auzatea, Foru plazan. 11:30-14:30 Txiki park eta Txu Txu tren, lortia zabalgunean. 12:00 Azken errepiketa eta zortzikoa, Altsasuko Txistulariak lagunduta, Foru plazan. 13:00 Eguediko kontzertua: Goxua'n Salsa taldearekin, Foru plazan. 13:00-15:00 Errigorako produktuekin egindako pintxo-bermuta, Herri Txokoan. 13:30 Bermut-a kuadrilaka, gaztetxeko plazatxoan. 15:00 Leioako 5ak libre elkartasun bazkaria, karpan. Ondoren, bingoa. Jai Batzordeak antolatuta. 16:00-19:00 Txiki park eta Txu Txu tren, lortia zabalgunean. 16:30-20:00 Peñen kafea, merienda eta kalejira, Foru plazan hasi eta Zumalakarregi plazan amaitu. Altsasuko Peñak-ek antolatuta. 17:30 Jokuak txarangarekin. 18:00 ASPEren esku pilota partida profesionalak, Burunda frontoian. 19:30 Buruhandiak, Foru plazan. 19:30-21:30 Nazioarteko Sí Señor Mariatxiaren kontzertua, Foru plazan. 20:00 Peñen jaitsiera, Zumalakarregi plazatik. Altsasuko Peñak-ek antolatuta. 21:15 Peñen iritsiera Foru plazara.

21:30 Altsasuko zortzikoa eta Larrain dantza, Altsasuko Txistulariekin eta Etxarri gaita jotzaileekin, Foru plazan. Bokata, karpan. Jai Batzordeak antolatuta. 22:00 Zezensuzkoa. 22:30 Playback kuadrilaka, karpan. Jai Batzordeak antolatuta. Ondoren, Karaokea. 23:30-02:00 Kontzertuak: Guilty Brigade eta Kaos Etiliko taldeak, Foru plazan. 00:00-02:00 Elektrotxaranga. Altsasuko Peñak-ek antolatuta.

#### IRAILAK 15 Ostirala

JAI BATZORDEAREN ALTSASUKO PEÑEN EGUNA  
09:30 Dianak Altsasuko Musika eta Dantza eskolako txistu ikasleekin. 10:00-13:00 XCIV Altsasu Txirrindularitza txapelketa. Altsasuko Kirol Elkarteak antolatuta. Kalejira, La Encina Kultur Elkartearen egoitzatik. La Encina Kultur Elkarteak antolatuta. 11:30 Beti Jaten Elkarteak eskainitako auzatea, Foru plazan. 12:00 Elvi Sabeliztuna, Zumalakarregi plazan. Herriko nagusiei omenaldia: Abardia jarriko zaie etxean, Udaltzaren Musika Eskolak girotua. Herri kirol erakustaldia eta trontza apostua, plazan. Jai Batzordeak antolatuta. 13:00 Neska\* gazteok Utopiak lehertzeraino: Baterajotzera! eta Zaintza eskubide kolektiboaren,

Greba Orokor Feministara! photocall-a, Herri Txokoan. 12:00-14:00 Eguediko emanaldia: Alurr Dantza taldearen Laia dantza emanaldia, Foru plaza. 14:30 Nagusien omenezko bazkaria. Ondoren, Fidelekin dantzaldia, lortia kultur gunean. 15:00 Makarronada, karpan. Jai Batzordeak antolatuta. Tiketak: Gure Etxean irailaren 8an, 9an eta 12an, 10 eurotan. 16:30-17:00 Altsasuko Peñen kafeak, Foru plazan. Altsasuko Peñak-ek antolatuta. 17:30-20:00 Elkartepoteoa eta merienda, Foru plazan hasi eta Zumalakarregi plazan amaitu. Merienda ibilbidean zehar. Altsasuko Peñak-ek antolatuta. 17:00-21:00 Kalejira, La Encina Kultur Elkartearen egoitzatik. La Encina Kultur Elkarteak antolatuta. 18:00 Irurtzungo Orritz pertsonai

mitologikoekin kalejira, plazan. 19:30 Buruhandiak, Foru plazan. 19:30-22:00 Edelweiss orkestrarekin dantzaldia, Foru plazan. 20:00 Peñen jaitsiera, Zumalakarregi plazatik. Altsasuko Peñak-ek antolatuta, 21:15 Peñen iritsiera Foru plazara. 21:30 Altsasuko zortzikoa eta Larrain dantza, Burundar txistulariekin eta Etxarri gaita jotzaileekin. 22:00 Zezensuzkoa, Foru plazan. 22:00-00:00 Goxo txarangaren kalejira. Gazteria Zerbitzuak antolatuta. 23:00 Kontzertuak: Ibil bedi eta Raimundo el Canastero taldeak, karpan. Jai Batzordeak antolatuta. 23:30-02:00 Edelweiss orkestrarekin dantzaldia, Foru plazan.

# SAKANAKO ERRALDOIAK

## Kolorista itzazu




ESKUALDEKO LIBURU-DIENDA HAUETAN SALGAI: BURUZIN, ELUSTONDO ETA MARTXUETA, ETXARRIARANATZ, KAXETA, ALTSASU, ARKATZ ETA LIBURUNDA



ALTSASUKO TXUPINAZOAZUZENEAN

WWW.GUAIXE.EUS

# IRAILAREN 13AN ASTEAZKENA

FESTAREN ESKUTIK





## AGENDA

EMAGUZUE ZUEN EKITALDIEN BERRI  
ASTEAZKENEKO 13:00AK BAINO  
LEHEN. Tel.: 948 56 42 75 / 661 523 245 /  
kultura@guaixe.eus

## OSTIRALA 8

**ARBIZU Zirkua.**  
Gure Zirkuaeren emanaldia.  
19:00etan, Gure Zirkuaeren karpan.

## ALTSASU Kontzertua.

Miguel Talavera & The Sultans of  
Swing Band taldearen Dire Straits  
taldeari tributua, Kultur programaren  
barruan.  
20:00etan, Foru plazan.

## LARUNBATA 9

IRURTZUN Txirindularitza  
proba.

La Peluso BTT Xtrem txirindularitza  
proba, La Peluxo Cycling Taldeak  
antolatuta. Bi ibilbide; laburra: 38,49  
km eta 1.084 metroko desnibela;  
luzea: 46,31 km eta 1.681 metroko  
desnibela.

09:00etan, Foru plazatik.

## ALTSASU Extremadura eguna.

La Encina Kultur Elkartearen  
Extremadura eta Guadalupe Ama  
Birjinaren egunaren ospakizuna.  
09:30 Extremadurako ogi mamiak,  
La Encinan.

11:00 Extremadurako ogi mamiak  
eta Guadalupe Ama Birjinari  
lore eskaintza, San Juan  
ermitan.

12:00 Askaria, San Juan ermitaren  
aurrean.

14:30 Herri bazkaria, La Encinan.

18:30 Brotes de Encina taldearen  
Extremadurako Folklore  
jaialdia, Iortia zabalgunean.

## UHARTE ARAKIL Ibilbidea.

Aralarko paisaiak Miruak gidatutako  
ibilbidea, Sakanako Garapen  
Agentziaren eta Plazaola  
partzuergoaren jasangarritasun  
planaren barruan.

09:45etan, Aralarko santutegitik.

## UHARTE ARAKIL Euskal Festa.

Euskal Festak 100 urte. Felipi Gorritiri  
omenaldia.

12:00 Kalejira: Buruhandien eta  
erraldioen konpartsa,  
faledunak, gaiteroak...

12:30 Felipe Gorritiri omenaldia  
jaio zen etxearen aurrean.

13:00 Uharte Kantuz kantu-ekin  
poteoa.

14:30 Herri bazkaria.

16:00-18:00 Bazkalostea Errotik  
taldearekin.

18:00 Toka txapelketa.

18:30-23:00 DJ Felix.

20:00 Talo jatea.

**ARBIZU Zirkua.**  
Gure Zirkuaeren emanaldia.  
17:00etan eta 19:30etan, Gure  
Zirkuaeren karpan.

## ETXARRI ARANATZ DJ saioa.

DJ Bull-en emanaldia eta udako  
azken mojitoak.

19:30etik aurrera, Leku Ona  
tabernan.

## ALTSASU Antzerkia.

La Saga antzeulanaren emanaldia,  
festaurreko egitarauaren barruan.  
19:30etan, Iortia kultur gunean.

## IGANDEA 10

## ALTSASU Mendi irteera.

Altsasuko Mendigoizaleen mendi  
irteera: Lizarrusti – Lareo – Sarastarri.  
08:00etan, klubeko egoitzatik.

## UHARTE ARAKIL Ibilbidea.

Aralarko landareen aberastasuna  
ibilbide gidatua Felix Reyrekin,  
Sakanako Garapen Agentziaren eta  
Plazaola partzuergoaren  
jasangarritasun planaren barruan.  
10:00etan, Zamartze monastegiko  
aparkalekutik.

**ARBIZU Zirkua.**  
Gure Zirkuaeren emanaldia.  
18:00etan, Gure Zirkuaeren karpan.

## OSTIRALA 15

## ZIORDIA Kontzertua.

Totem y Tabu taldearen rock and roll,  
country eta pop bertsioren kontzertua.  
20:30etan, Etxaleku tabernan.



IORTIA KULTUR GUNEA

**ALTSASU** Altsasuko festetako kartel lehiaketako irudien erakusketa.  
Irailaren 10era arte. Iortia kultur guneko erakusketa gelan.

## JAIOTZAK

- Iraia Isturiz Razkin, uztailaren 21 ean Irurtzunen
- Aimar Elizalde Olmedillo, abuztuaren 1ean Altsasun
- Ekhi Galarraga Lobo, abuztuaren 9an Etxarri Aranatzen
- Youssef Makhoul El Abdoumi, abuztuaren 11n Etxarri Aranatzen
- Eneko Ramos Barriga, abuztuaren 14an Altsasun
- Mikel Garciandia Labayen, abuztuaren 15ean Uharte Arakilen
- Mikel Exposito Gasco, abuztuaren 20an Etxarri Aranatzen
- Ierai Beraza Garcia, abuztuaren 22an Lakuntzan
- Hizki Garziandia Jauregi, abuztuaren 23an Arbizun
- Anuk Agirre Arenas, abuztuaren 29an Urdiainen
- Mariñe Garcia Gonzalez, abuztuaren 31n Altsasun
- Izan Raposo Franco, irailaren 1ean Irurtzunen
- Omayma Lahyani Boutzakhut, irailaren 3an Irurtzunen

## EZKONTZAK

- Carolina Robles Gila eta Jon Auza Makuso, abuztuaren 5ean Irurtzunen
- Daniel Molinero de la Cruz eta Edurne Iglesias Vilches, abuztuaren 14an Irurtzunen

## HERIOTZAK

- Bernarda Velasco Alvarez de Arcaya, uztailaren 23an Olaztin
- Maria Esther Huarte Fernandez, uztailaren 29an Uharte Arakilen
- Ricardo Huarte Sarasa, uztailaren 29an Uharte Arakilen
- Julio Lopez de Zubiria Larraza, abuztuaren 3an Iturmendin
- Juan Maria Begiristain Urriza, abuztuaren 4an Iturmendin
- Jose Miguel Goñi Igoa, abuztuaren 6an Etxarri Aranatzen
- Jose Luis Fernandez Artola, abuztuaren 11n Uharte Arakilen
- Maria Camino Lanz Garziandia, abuztuaren 22an Lakuntzan
- Jesus Razkin Valluerca, abuztuaren 27an Olaztin
- Juan Maria Mendinueta Zaldua, abuztuaren 23an Arbizun
- Fernando Etxarri Garziandia, abuztuaren 27an Altsasun
- Jose Manuel Azpiroz Armendariz, abuztuaren 29an Lakuntzan
- Sebastian Goñi Lakuntza, abuztuaren 30ean Arbizun
- Juan Manuel Amores Cuesta, irailaren 1ean Lakuntzan

INFORMAZIO HAU EPAITEGIETAN ETA UDALETAN JASOTZEN DA. AGERTU NAHI EZ  
DUENAK, HAN JAKINARAZI DEZALA.

## IRAGARKI SAILKATUAK

MEKANIKARI  
LANPOSTUA

Kamioi eta autobus  
tailerra Sakanako  
inguruko langile  
bila. Mekanika,  
txapa eta margo  
ezagutzak balora-  
tuko dira. Telefonoa  
948 507 019

## LANA/NEGOZIOAK

## ALOKAGAI

**Altsasun Coworking  
bulegoa autonomo eta  
urruneko langileen-  
tzat:** Altsasun 4 edo 5  
pertsonean artean par-  
teketzeko bulegoa;  
Wifia, inprimagailua,  
berogailua, komuna eta  
office-a ditugu. Aukera  
paregabea! Informazio  
gehiago 948 562 604  
edo 603 417 554 tele-  
fonoetara deituz.

## LAN ESKAINTZA

**Sakanako Haragiaren  
Eraldatze Gunerako  
arduradun-dinamiza-  
zaile lanpostua:** Kal-  
laska Kooperatibako  
zuzendaritzarekin koor-  
dinatuta, Etxarri Aran-  
atzen dagoen eskualde-  
ko haragi transformazi-  
oiko zentroa kudeatu  
eta dinamizatuko du,  
abere sektore estentsi-  
boari, harategiei eta  
beste erabiltzaile bat-  
zuei eskaintzen zaiz-  
kien sakrifizio, triperia,  
hezurgabetze eta zati-  
keta zerbitzuak koordi-  
natu eta abian jartzeko.  
Hautapen prozesuan  
sartzen diren pertsonen  
elkarrizketa edota hau-  
tapen proba baterako  
dei egingen zaie. Intere-  
sa dutenek Curricu-  
lum-a eta motibazio  
gutuna bidal dezakete  
info@sakanagaratzen.  
com helbidera irailaren  
15a baino lehen.

## IKASTAROA

**'Sakanan Zaindu ger-  
tutik' jardunaldia:**  
Sakanako Mankomuni-  
tateko Berdintasun  
Zerbitzuak irailaren  
20ean eta 21ean Lakuntzan antolatuko duen jardunaldietan izen ematea zabalik. Informazio gehiago [berdintasuna@sakana-mank.eus](mailto:berdintasuna@sakana-mank.eus) helbidean.

**Etxarri Aranazko udal  
ikastaroetan izen  
ematea zabalik:** Iraila-  
ren 14ra arte izena

eman daiteke [www.etxarriaranatz.eus](http://www.etxarriaranatz.eus) web orrian, [erregistroa@etxarriaranatz.eus](mailto:erregistroa@etxarriaranatz.eus) helbidera idatziz, udal bulegoan, edo 948 460 004 telefonoan. Honako eskaintzak daude: Yoga, soinketa lasaia, tonifikazioa, pilates, haurrendako zirku tailerra, pintura, estimulazio kognitiboa, jostintza, hiketan ikastaroa, AEK-ko euskara ikastaroak eta mintzakide taldea. Inprimakiak eta arautegia [www.etxarriaranatz.eus](http://www.etxarriaranatz.eus) web orrian eta udal bulegoan eskuragai.

## OHARRAK

**Nekazaritzako ibilgai-  
luen inspektio tekni-  
koa herri hauetan  
izango da:** Arbizun  
irailaren 11n, Lizarragan  
12an, Unanun 13an eta  
Etxarri Arantzen 14an  
eta 15ean. Ordutegia  
9:15tik 14:15era.

**Odol emateak Etxarri  
Aranatzen:** Irailaren  
13an, asteazkenean,  
17:00etatik 21:00etara,  
Osasun Etxean.

**Emakumeen bilgunea-  
ren zabalpen zerrenda  
martxan:** Altsasuko  
Udaleko Emakumeen  
Bilgunea WhatsApp  
aplikazioko zabal-  
pen-zerrenda bat sor-  
tuko du, Berdintasun  
Zerbitzutik antolatzen  
ditugun ekitaldi eta  
jardueren berri emate-  
ko. Zabalpen-zerrendan  
parte hartu nahi baduzu,  
bidali iezaguzu Wha-  
tsapp-eko mezu bat  
zure izen-abizenekin  
eta zerrendan parte  
hartu nahi duzula adie-  
raziz telefono honetara:  
628 32 85 93.

**Euskara hutsezko  
Udalekuetara joango  
diren haur eta gaz-  
teendako dirulagun-  
tzak:** Udalekuak 5 egun  
eta 15 egun bitartean  
iraun behar dute eta  
ekainaren 15etik iraila-  
ren 30era bitarte buru-  
tu behar dira. Informazio  
gehiago [www.sakana-mank.eus](http://www.sakana-mank.eus) web  
orrian eskura dezake-  
zue.

[iragarki@guaixe.eus](mailto:iragarki@guaixe.eus)  
[www.iragarkilaburak.eus](http://www.iragarkilaburak.eus)

**Erviti** aluminio  
PVC

Akaborro industrialdea 13 Irurtzun | 948 500 813 | [info@aluminioerviti.es](mailto:info@aluminioerviti.es)



Azkartasun handiko zerbitzua

LEIHOAK, ATEAK, BALKOI ETA TERRAZEN ITXITURAK

Erakusketa Irurtzunen

ESKELA



## Jose Manuel Azpiroz Armendariz

(Lakuntzan hil zen, 2023ko abuztuaren 29an, 44 urte zituela)

Goizean goizik jaiki eta  
leiho parean eseri,  
begira nago zure begiak  
ea non diren ageri,

baina hormetan zehar ez diot  
antzik ematen ezeri.  
Zure begiak hurbil banitu  
haietan nenbilke igeri.



Familiak jasotako dolumin eta maitasun keinu guztiak bihotzez eskertu nahi dizkizue

**Etxekoak**

ESKELA



## Jose Manuel Azpiroz Armendariz

Kaixer, Josete, Torremotxa, Imanol, Jose...  
Zenbat izen. Ze handia zinen.  
Gutariko bakoitzak zurekin bizitakoagatik,  
gure artean jarraituko duzu. Beti.



**Zure lagunak**

Euskal Herrian, 2023ko abuztuaren 31n

ESKELA

## Jose Manuel Azpiroz Armendariz

'Kaixer'

Orain arteko bidearen  
iparra izan zara,  
gure etorkizuneko izarra  
izango zarena.

**Zure kuadrila**

LAKUNTZA, 2023ko abuztuaren 29an

OROIGARRIA



**'Kaixer'**

Lakuntzako zinegotzia

Eskerrik asko  
Lakuntzari emandako guztiagatik



Lakuntzako Udala



OROIGARRIA

**'Kaixer'**

Zure indarrarekin  
berriro egingo dugu  
Eskerrik asko mette

**ehbildu**



**IZARRA**

HEMEN, ZURE ONDOAN

**Izarra, Nafarroako tanatorioa**

Gure lurra, gure jendea, gure sustraiak

BEILATOKIAK

**ALTSASU**  
Santa Cruz, 6

**ETXARRI-ARANATZ**  
Nagusia, 2

948 05 90 90 • [www.izarratanatorio.com](http://www.izarratanatorio.com)



**IRACHE**  
tanatorioak

Tanatorioak: Altsasu – Irurtzun – Lekunberri – Betelu – Leitza

“Betidanik”

☎ 948 19 70 70

🐦 @Grupolrache

📘 Grupolrache

🌐 [www.tanatoriosirache.es](http://www.tanatoriosirache.es)


ESKELA



## Kaixer

Zeruan izarrrik politena piztu da  
Maite zaitut

ESKELA




## Juan Maria Mendinueta Zaldua

'Ixela'  
(2023ko Abuztuaren 23an hil zen 73 urte zituela)

"Oroitzapenek esnatu naute ametsetan nengoela, alboan sentitzen zaitudan arren, ohartu naiz etzaudela"

Betiko guukin  
**Familiya**



ESKELA



## Juan Mari Mendinueta Zaldua

'Ixela'

Plazerra izan da zu ezagutzea eta zure lagun izatea.  
Beti egongo zara gurekin.

**Zure lagunak**  
Arbizu



ESKELA



## Joxe Migel Goñi Igoa

ANDRA MARI IKASTOLA

Andra Mari Ikastolako sortzailea

Andra Mari Ikastolako sortzailea

"Zu sortu zinen enbor beretik sortuko dira besteak, burruka hontan iraungo duten zuhaitz-ardaska gazteak"

**Andra Mari ikastolako guraso, langile eta ikasleak**

ESKELA

## Julio Lopez de Zubiria Larraza

(2023ko abuztuaren 3an hil zen)

Mila esker denagatik



**Iturmendiko Udala**

OROIGARRIA

## Txaro Cerdán Calvo

X.urteurrena

Ahazten ez dena ez da inoiz hiltzen  
Maite zaitugu

**Zure familia**



OROIGARRIA



## Jairo Azpilikueta Martinez

I.urteurrena

Denbora pasa den arren... zure irribarrea, zure ahotsa... zurekin bizitako une guztiek gure oroitzapenetan diraute.  
Asko maite zaitugu Jai

**Zure familia**

OROIGARRIA



XABI  
DAVID  
CARLOS  
MAITE

## XXX. urteurrena

Urak dakarrena, urak daroa.  
Zuek emandakoa gurekin gelditzen da.

**Zuen lagunak**  
Irurtzun 2023/1993-09-12



**ESKELAK JARTZEKO: 948 56 42 75**  
edo eskelak@guaixe.eus

- ▶ Eskelen tarifak: 55,90 € / 106,5 € / 143,70€  
prezio hauek BEZa barne dute.
- ▶ Bazkideek % 10eko deskontua dute.
- ▶ Eskelak jasotzeko azken eguna: Osteguna goizeko 11:00k baino lehen.



# Sakana, txirrindularitza egun ederren atarian

**TXIRRINDULARITZA** Larunbatean Irurtzungo La Peluso BTTXtrem eta Ziordiko eskola mailako lasterketak daude jokoan, eta igandean, Espainiako Vuelta Sakanara sartuko da. Irailaren 15ean afizionatuen 94. Altsasu Txirrindularitza Probaren txanda izango da

**Maidar Betelu Ganboa SAKANA** Sakana txirrindularitza dela jakina da. Egunotan, agian, gehiago, txirrindularitza probak izango baititugu bata bestearen atzetik. Goi mailakoak, gainera.

## Bikerrak Irurtzunen

Irailak 9, larunbata, 9:00etan abiatuko da La Peluso Cycling Taldeak antolatutako La Peluso BTTXtrem 2023. Irurtzun irteera eta helmuga izanik bi ibilbide eder antolatu dituzte. Laburrak 38,48 km eta 1.084 kilometroko desnibela du, eta luzeak 46,31 km. Biak Irurtzun, Larraun, Iza eta inguruko herrietako xenda, bide eta baso ikusgarrietatik pasatzen dira, eta proba ez lehia-korrek dira. Ibilbideaz gozatu ondoren, bukaeran, txirrindulariek bazkari gozoa izango dute zain Irurtzunen; eta denetarik sariak zozketatuko dira.

Bestalde, Ziordiko festetan ez da faltako Burunda klubak antolatutako eskola mailako lasterketa. Larunbatean izango da, 16:00etan, herrian prestatutako gunean.

## Vuelta, etzi bitan Sakanatik

Espainiako Vuelta Sakanatik pasako da aurten ere. Atzo, osteguna, Tourmaleten despeditutako etapa ikusgarriaren ondoren; gaur, ostirala, Larra-Belaguan despedituko da etapa. Igandean, Iruñetik abiatuta, Lekunberrin bukatuko da (158,5 km), Sakanatik pasa eta gero.

Igandean txirrindulariak 13:20ean abiatuko dira Iruñeko irteeratik. Sakanara Andiatik sartuko da Vuelta, 3. mailako Lizarragako portutik, 15:27ak aldera. Lizarragatik 15:39ean pasako dela aurreikusten da, eta Etxarri Aranaztik 15:44an. Arbizu, Lakuntza, Arruazu, Uhar-te Arakil, Ihabar eta Etxarren gaudituta, Etxeberritik 2. mailako Zuarrarrate portua igotzen 15:22 aldera hasiko dira, Astizko



2020ko Vuelta Etxarritik igaro zenekoa. ARTXIBOA

bidea hartuz. Txirrindulariek bitan igoko dute Zuarrarrate. Astiztik Alli, Lekunberri, Mugiro eta Latasa lotu ondoren, tropela Sakanara sartuko baita berriro, Irurtzunera, 16:05 aldera. Ondoren, atzera ere Zuarrarrateko bidea hartuko du tropelek, zuzenean Lekunberriko helmugara jotzeko. Antolakuntzak aurten ez du 1. mailako San Migel portuko igoera ibilbidean sartu nahi izan, bezperako etapak oso gogorak direlako eta etapa gehiegi ez gogortzearen.

Eguraldia lagun, Lizarragako portuan, Zuarrarraten eta ibilbideko gainontzeko txokotan jende andana espero da. Antolakuntzak segurtasun oharra jarraitu eta ingurunea zaintzeko deia egin die zaleei. Vueltan Hiriberriko Imanol Erbiti txirrindularia da sakan-dar bakarra, bestelako teknikariak kontuan hartu gabe.

**VUELTA LIZARRAGAKO PORTUTIK SARTUKO DA IGANDEAN, 15:27AK ALDERA. ZUARRARRATE BITAN PASAKO DU**

Erbiti Enric Mas liderraren aldeko lan ordainezina egiten ari da.

**Euskal ikurrak ateratzeko deia** Gure Esku Dagok "Basques Decide, Euskal Herriak erabaki



Mikel Uncilla, Laudio Sariko txapela eta trofeoarekin. OSKAR MATXIN

## Mikel Uncillaren lehen garaipena

Etxarriarak (Rural Kutxa-Alea) afizionatuen bere lehen garaipena lortu zuen abuztuaren 19an, Larrañoko murrain eraso jo eta Laudioko Saria maisuki irabazita. Rural Kutxak 28 garaipen daramatza.

2023" kanpaina martxan jarraidu, eta Vueltak Euskal Herrian egiten duen ibilbidean barna kanpainaren leloko irudiak zabaldu eta Euskal Herriko ikurrak erakusteko deia egin die txirrindulazaleei.

## Altsasu Probak 94 urte

Estatuko proba beteranoena dena, afizionatuen mailako 94. Altsasu Txirrindularitza Proba, irailaren 15ean jokatuko da, ostiralarekin, Altsasu Kirol Elkarteak antolatuta. 137,2 km-ko lasterketa Lehendakari Txapel-

ketarako baliagarria den azken aurreko proba da. 10:00etan abiatuko da eta helmugaratzea 13:30 aldera izango dela aurreikusten du Felix Mazkieran probaren arduradunak. "Aurten aldaketak egongo dira. Nabarmenena, Altamira zortzi aldiz igoko dutela".

"Lasterketa aste egunez jokatzen denez, zailago izaten da boluntarioak lotzea, jende asko lanean dagoelako, eta, bestetik, industria guneak zabalik daudelako, langileen joan-etorrerarekin".

HURRENGO ORRIAN JARRAITZEN DU »

# KIROL + MONITOREEN LAN-POLTSA

**Gutxieneko baldintzak:**

- Oinarrizko kirol titulazioa
- Euskaraz jakitea, ahoz nahiz idatziz (C1 egiaztatu beharko da).

**Harremanetan jartzeko modua:**

Interesa dutenek beren curriculum honako helbide honetara bidali beharko dute:

[kirolak@sakana-mank.eus](mailto:kirolak@sakana-mank.eus)

**Mank sakana**



Joan zen urtean Yanne Dorenbos herbeherearra izan zen garailea. ARTXIBOA

Horregatik, aurten azken urteetako Amezitia auzorainoko bi igoerak kentzea erabaki dugu, eta horren ordez txirrindulariek zortzi aldiz igoko dute Altamira" azaldu du Mazkiaranek. Lasterketa zazpi aldiz pasako da herri gunetik, Urdiain-San Pedro-Altsasu buelta sei aldiz egingo du eta Altamira zortzitan. Beraz, giroa eta mugimendua ziurtatuta dago. Guztia behar bezala antolatzeko 80 boluntario inguru ariko dira lanean bidegurutzeak, autoak, motorrak, megafonia eta bestelako lanak kontuan hartuta.

Altsasuko Proba Lehendakari Txapelketarako baliagarria den azken aurreko proba da, asteburuan Urdulizen eta Baranbion jokatu diren bi lasterketen atzetik. Momentuz, Laboral Kutxako Ander Ganza bal da liderra (111 puntu), bere taldekide Iñaki Diazen (80 puntu) eta Rural Kutxa Alea talde sakandarreko Lucas Joseph Towers (64 puntu) aurretik. "Asteburuko lasterketetan sailkapena estutzen bada, horrek mesede egingo dio Altsasuko lasterketari, ikusmin eta ikuskizun gehiago egongo baita". Irailaren 16an Oñatin jokatu den lasterketak erabakiko du Lehendakari Txapelketa. Rural Kutxa-Alea taldearendako etxeko proba da Altsasukoa, oso motibagarria, "baina azken urteetan trahatu egin zaie. Li-

**"GARAIPENA HERRIAN GELDITZEA EDERRA LITZATEKE. EA MINGEGIK AUKERA DUEN"**  
FELIX MAZKIARAN

zarte taldeak, egungo Finishe- rrek, lortu ditu azkenaldian garaipenik gehienak".

Felix Mazkiaranek garaipena Altsasun bertan gelditzea nahiko luke. "2004an Pablo Urtasun urdiaindarra izan zen Altsasuko Probako txapelduna, baina 1960an Martin Jose Zelaia altsasuarrak irabazi zuenetik, lasterketa ez du beste altsasuar batek irabazi. Aurtengoa Laboral Kutxako Iker Mintegi altsasuarraren afiziona- tuen azken urtea izango da, profesioaletara salto egingo baitu. Horregatik, zeinen ederra litzateke Mintegik jaioterriari irabaztea eta afizionatuen maila etxeko garaipenarekin ixtea" opa du Mazkiaranek.

#### Igor Arrieta UAEra

Txirrindularitza munduko zurrumurruak abuztuaren 5ean baieztatu zituen UAE taldeak. Kern Pharma taldeko Igor Arrieta Lizarraga txirrindulari uharte arakildarrak UAE taldearekin kontratua sinatu du, hiru urterako. 20 urteko gazteak Tadej Pogacar, Adam Yates eta Marc Soler izango ditu bidaide, besteak beste. Saltoa izugarria da, eta Arrieta "oso kontentu eta hunkituta" dago. "UAE munduko talderik onenetakoa da, eta bertako kide izateko irrikaz nago. Nire onena emateko prest nago, datozen urteetan taldean hazteko". Arrieta Tour of Britain lasterketan parte hartzen ari da, igandera arte.

Bestalde, Rural Kutxa-Seguros RGA taldeko Josu Etxeberria txirrindulari profesionala ere denboraldi polita osatzen ari da. Berriki Burgosko Vueltan aritu zen, itxura bikaina emanez eta protagonista izaten.

# "Une honetan ez dut Xotaren kontra jokatu nahi, inola ere ez"

**IMANOL ARREGI SARASA ARETO FUTBOLEKO ENTRENATZAILEA**

**ARETO FUTBOLA** 22 urtez Xotako entrenatzaile izandako irurtzundarrak bere klubaren merezitako omenaldia jaso zuen Anaitasunan

#### Maidar Betelu Ganboa IRURTZUN

Irurtzungo Xota areto futbol klube- ko izen handietako bat da Imanol Arregi Sarasa irurtzundarra (1971-12-08). Azkeneko 22 urtetan Xotako entrenatzaile, aurretik taldeko atezaina izan zen, 15 urte zituenetik. Bizitza guztia herriko klubari emana. Arnasa hartu, gelditu, eta atsedena behar zuelako, Imanolek Xota uztea erabaki zuen joan zen denboraldia bukatuta, eta taldea lehen mailan utzita. Emandako guztiagatik esker onez, merezi- tako omenaldi polita egin zion Xotak Imanoli aurreko ostiralean Anaitasunan, Osasuna Magna Xotak Barçaren kontra jokatu- tako 2023/2024 denboraldiko lehen partidaren atsedendaldian.

**Zeinen omenaldi polita! Nola bizi izan zenuen?**

Urduri nengoen, baina,aldi be- rean hunkituta. Lotsa pixka bat ere pasa nuen, ez pentsa. Baina atsegina izan zen horrenbeste jenderen aurrean aitortza jasoz- tea. Oso polita izan zen. Ez nuen horrenbestekoa izango zenik espero. Banekien hunkituko nintzela, urte asko direlako eta Xota nire taldea delako, nire kluba. Ederra izan zen.

**Xotako Tatono Arregi presidente eta anaiak eta Txuma Sangüesa delegatuak, Barcelona Futbol Klube- ko Aureli Masek, Osasunako Cesar Muniainek, Nafarroako Fut- bol Federazioko buru Rafa del Amok, Espainiako Futbol Federazioko Javier Lorentek eta Lardero Kirol**

#### Elkarteko Lucas Hernandok eskai- nitako oroigarriak jaso zenituen.

Omenaldian areto futboleko or- dezkeri askok parte hartu zuten. Eta Xotako zaleek. Anaitasunan jende asko zegoen, eta ekitaldia oso hunkigarria izan zen. Emo- zioei nahiko ongi eutsi nien, baina Txuma Sanguesa sartu zenean... ezin izan nion eutsi, eta malkoak borborka hasi ziren. **Xota entrenatzeari utzi zenionean esan zenuen arnasa hartu beharra zenuela, airea behar zenuela, atse- den hartu. Nola zaude?**

Ongi. Hasieran kosta egin zitzaid- dan, ez pentsa. Oso arraroa egi- ten zitzaidan, bereziki aurre denboraldia hasi zenean. Baina atsedean tarte bat hartu beharra nuen, urte asko baineramatzen uda estresanteak bizitzen: fitxa- keten inguruko kezak, areto futbolarien ordezkariekin elka- rrizketak, aurre denboraldiko

**"BANEKIEN OMENALDIAN HUNKITUKO NINTZELA. URTE ASKO DIRA, ETA XOTA NIRE KLUBA DA"**

**"URDURI JARRAITU NUEN PARTIDA. HARMAILAN GAIZKI PASATZEN DA, EZIN DUZULAKO EZER EGIN"**

prestaketak... Gelditu eta atsedean hartzea beharrezkoa nuen, es- kertzekoa dena. Hilabete batzuk lasai egongo naiz, familiaz, seme txikiak eta lagunak gozatzen.

**Dena den, ez zara guztiz gelditu, zenbait 'clinic' edo areto futbol formazio saio eskaini dituzulako han eta hemen.**

Bai, Martorellan egon nintzen, eta Kanariar Uharteetan. Azaroan Costa Ricara joango naiz bertan beste clinic saio bat eskaintzera. Abendu aldean ikusiko dut zein bide hartuko dugun.

**Lehen Mailako denboraldiko lehen partida jokatu zuen Osasuna Magna Xotak joan zen denboraldiko txapeldun Barçaren kontra. Ikusgarri jokatu, 3 eta 1 aurreratuta egon zen Xota, baina Barçak hiru- na berdintzea lortu zuen, nahikoa sufrituta. Nola bizi izan zenuen partida zale gisa?**

Oso urduri. Partida harmailan jarraitzeko gogoia nuen, gainon- tzeko zaleen moduan, baina ome- naldiagatik palkoan eserita egon behar izan nuen, eta, horregatik, neure burua pixka bat kontrola- tu behar izan nuen. Harmailan gaizki pasatzen da, han behean, aulkian zaudenean gutxienez zerbait egin dezakezulako. Alde horretatik, nahiko inpotente sentitu nintzen. Ezin duzu ezer egin. Berdinketa ez zen bidezkoa izan, Xotak irabaztea merezi zuelako.

**Nola ikusi zenuen Xota?**

Taldea oso ongi ikusi nuen, au- rretik generaman ildo beretik.



Imanol Arregi Sarasa, Xotak aurreko ostiralean 22 urte entrenatzaile eta aurretik atezain izandako irurtzundarrari eskainitako omenaldia eskertzen. XOTA

Ordenatuta aritu zen taldea. Fitxaketa berriek freskotasuna eman diote taldeari. Nahiz eta Leo Café falta izan (Brasilen zegoen, bere anaia eta iloba auto istripuan zendu baitziren), uste dut aurtengoa aurreko denboraldiak baino lasaiagoa izango dela, plantilla zabalagoa baita. **Dani Saldise irurtzundarra etxera itzultzeak ere indarra eman dio taldeari.**

Zalantzarik gabe. Danik gola du, eta gola nabarmen falta izan dugu azken urteetan. Pachuk ere gola du... Fitxaketa gehienek dute gola. Dani gaztea da, baina, aldi berean, esperientzia handia du. Banago taldeari bere itzulera oso ongi etorriko zaiola.

**Miguel Hernandez entrenatzaile berria, orain arte zure bigarrena izan zen. Nola ikusi zenuen?**

**"TALDEA ONGI IKUSTEN DUT, FITXAKETA BERRIEK FRESKOTASUNA EMAN DIOTE"**

**"KANPORA ENTRENATZERA JOATEKO GOGO GEHIAGO DUT HEMEN GERATZEKO BAINO"**

Ongi, bai bera eta baita jokalariek eta kapitaina izateaz gain bere laguntzaile izango den Roberto Martil "Palote" irurtzundarra ere. Biek urte asko daramatzate nirekin, eta partidaren eta entrenamendu batzuetan ikusi ahal izan dudanez, aurreko jokatzeko moldearekin jarraituko dute, bide berean. Partidaren esperotzaren baino lasaiago ikusi nuen Miguel, ongi. Baita Palote ere. Uste dut ongi egingo dutela.

**2023/2024ko Osasuna Magna Xotak itxura oso ona du.**

Zalantzarik gabe. Plantilla orekatuagoa dela iruditzen zait; taldeak itxura ona du. Espero dut denboraldi ikusgarria izatea, guztiok disfruta dezagun.

**Badaukazu inbidiarik, pixka bat baldin bada ere?**

22 urte daramatzat Xota entrenatzen eta beste 15 urte Xotan jokatzeko. Jakina hor behean ez egoteagatik inbidia nuela. Sanoa.

Dena den, argi nuen gelditu beharra nuela. Baina areto futbolarekiko gaixotasun honek hori du, denboraldia hasi eta baloia bueltaka hasten denean hor egon nahi duzula. Lasai nago, joan den denboralditik geratu ziren jokalariek garrantzitsuek jakin baitakite nola jokatu behar duten, eta egin dituzten fitxaketak ikusita argi dut taldea ongi ibiliko dela. Gero ikusiko da zer gertatzen den, hau kirola delako, baina

lehenengo eguneko partidaren sentsazioa izan nuen taldea ongi ariko dela, ziur.

**Epe motzean zure burua areto futbol teknikari ikusten duzu, ala epea datorren denboraldiraino luzatuko duzu?**

Entrenatuko dut, hori ziur, baina tarte bat behar dut. Horregatik onartu nuen Costa Ricako azaroko *clinic* ikastaroa. Neure burua ezagutzen dut: norbaitek ongi zirikatuz gero berehala animatzen naizenez, banekien denboraldi hasieran hasiko nintzela lanean. Eskaintzaren bat jaso izan nuen, baina atsedean hartu beharra nuen, ez nuen nahi. Tentazioari eusteko onartu nuen azaroko *clinic*-a (kar, kar). Hori bai, abendutik aurrera ikusiko dugu zer gertatzen den. Argi dudana da une honetan ez dudala beste talde batekin Xotaren kontra jokatu nahi. Ez dut batere gogorik. Horregatik, litekeena da kanpora joatea.

**Beraz, kanpora ateratzeak erakartzen zaitu.**

Bai. Gainera, abentura gogoia dut. Une honetan gehiago dut kanpora joateko gogoia hemen geratzekoa baino. Baina ikusteko dago. Ea zer ateratzen den, eta zein erabaki hartzen dugun. **Momentuz, Xota animatzen joatea. Hori argi eta garbi, ezta?**

Jakina! Xota da nire kluba, nire herrikoa, Irurtzundarra. Anaitasunaren jokatzeko duten guztietan han egongo gara, taldea animatzen.

## Osasuna Magna Xotak ilusioz ekin dio denboraldiari

Irailaren 1ean hasi zen 2023/2024 Lehen Mailako Areto Futboleko denboraldia. Osasuna Magna Xotak ilusioz ekin dio aldaketaz betea datorren denboraldiari. Miguel Hernandez entrenatzaileak zuzendutako ligako lehen partidaren Xotak joan zen urteko txapelduna, Barça, hartu zuen. Bikain aritu ziren nafarrak. Garaipena eskura izan zuten, 3 eta 1 aurreratu baitziren Dani Saldisek, Andres Geraghtyk eta Toni Escribanok sartutako golei esker, baina txirrina jotzear zela hiruna berdindu zuen Barça. "%100ean jokatu dugu eta muturrera eramantzen ditugu. Pena dugu partidak ihes egin digulako, baina egindako lan positiboaren dinamikarekin jarraituko dugu".



Lehen mailako Xotako lau irurtzundarrak: Dani Saldise, Asier Llamas, Roberto Martil eta Ion Cerviño. XOTA

**Oier Aguirre, hurrena** Xotak abuztuaren 30ean egin zuen aurkezpena. Lehen mailari eustea da xedea. Andres Geraghty, Juninho, Toni Escribano, Leo Café, Jhonatan Linhares, Fabinho,

Pachu, Eloy, Alejandro Palazon eta taldeko lau irurtzundarrek osatzen dute talde nagusia: Asier Llamas, Roberto Martil, Ion Cerviño eta aurtengoa itzuli den Dani Saldise. Aurki beste sakandar bat

batu ahal zaie: Oier Aguirre iturmendiarra. Harrobiko jokalaria da, baina sarritan lehen taldearekin entrenatzen du. Barçaen kontra konbokatuta zegoen, baina ez zuen debutatu.



Joan zen urtean 265 sakandarrek eman zuten izena.

## Bizikletak prestatu, data gorde, eta izena eman

**TXIRRINDULARITZA** Irailaren 24an izango da XXIX. Sakanako Bizikleta Eguna. Irailaren 18rako eman behar da izena

**Maidar Betelu Ganboa** SAKANA Sakanako Mankomunitateak antolatzen duen Sakanako Bizikleta Eguna udazkenari ongi etorria egiteko ekitaldi bikaina da, klasikoa bilakatu dena. Klasikoa, aurten XXIX. edizioa izango delako. Familiartean edo lagunartean Sakana ezagutzeko aukera paregabea da, plan ederra. Aurten irailaren 24an izango da. Ziorditik abiatuko da, 9:00etan, Irurtzunera heltzeko (37 km).

### Aseguruak eta beste

Ekimena dohainik da, baina aurretik izena eman beharra dago,

azpiegitura guztia behar bezala lotzeko: autobusak, kamioiak, eta, agian, garrantzitsuena dena: aseguruak. "Bizikleta eguneko parte hartzaileendako aseguruak kontratatzen dugu, eta horretarako euren izen-abizenak behar ditugu, zer gerta ere, babestuak egon daitezzen. Beraz, izenik eman gabe ezin da parte hartu" azaldu du Amaia Gerrikagoitia kirol teknikariak. Izena ematea zabalik dago irailaren 18ra arte (948 464 866, [kirolak@sakana-mank.eus](mailto:kirolak@sakana-mank.eus)). 10 urtetik gorakoek eman dezakete izena. Txikiagoak lagunduta joan beharko dira.

## Pablo Lopez de Goikoetxea Altsasun omendua

**PILOTA** Altsasuarrak 50 urte pasa daramatza pilota sustatzen. Otadiko Kristo Deuna Torneoan murgilduta dago

Abuztuaren 18an, CaixaBank Masterseko Altsasuko jaialdian Pablo Lopez de Goikoetxeak omenaldia jaso zuen bizi guztian pilotaren alde egindako lanarengatik. Altsasu Kirol Elkarteke pilota arduradun eta Nafarroako Pilota Federazioko hautatzaile eta material arduradun izandakoa "oso eskertuta" dago.

Otadiko Kristo Deuna Torneoan murgilduta, bihar, larunbata, 22:00etan, mistoan Carabias-Arrastiak Zabaleta-Vicente izango dituzte aurkari, eta seniorrean Fernandez-Lozak apezteatarrak.



Pablo Lopez de Goikoetxea, Burundan.

# Baloia birarazten hasi da: martxan da denboraldia

**FUTBOLA** Altsasuk Preferente mailari ekin dio, asteburuan jubenilen txapelketak hasiko dira, eta Erregional mailako liga irailaren hirugarren asteburuan mustuko dute Etxarrik eta Lagun Arteak. Emakumezkoen Preferentea, kadeteak eta infantilak, hurrenak

**Maidar Betelu Ganboa** SAKANA Martxan da futboleko 2023/2024 denboraldia. Preferente mailan Altsasuk lehen partida Iruñean jokatu zuen, Universidad de Navarraren kontra. Lehia estuan, Xabier Aiestaranek eta Asier Claverrek sartutako golei esker 1 eta 2 gailendu ziren altsasuarrak eta hiru puntu gozo ekarri zituzten Sakanara. Igandean, 17:00etan, Altsasuk Leitzako Aurrera taldea hartuko du Dantzalekun.

Etxarri Aranatz eta Lagun Artea Erregional mailara jaitsi ziren. Irailaren hirugarren asteburuan hasiko dute denboraldia.

Asteburu honetan hasiko direnak jubenil mailakoak dira. Liga Nazionalean, Osasuna Bren kontra jokatuko du Altsasuk larunbatean 12:00etan Taxoaren. Lagun Artea jubenilen bigarren mailatik lehen mailara igo da, eta Jose Antonio Claverrek gidatzen dituen mutilek kategoria berria larunbatean mustuko dute,



Mailaz igo den Lagun Arteko jubenilen taldeak Lakuntzako festen suziria piztu zuen.

10:00etan, Beti Onak taldearen kontra Atarrabian jokatuko duten partidan. Jubenilen bigarren mailan jokatzen duten Altsasuk eta Etxarri Aranatzek irailaren laugarren asteburuan hasiko dute denboraldia.

Emakumezkoen Preferente Mailari ere irailaren 22 eta 24 bitarteko asteburuan ekingo dio Altsasuk. Asteburu horretan ere hasiko da kadeteen eta infantilen edo haurren mailako denboraldi berria.

## ESKALADA Ikastaroa, eskaladara modu seguruan hurbiltzeko

Eskaladan hasi edo ezagutzak freskatu nahi dituztenendako hastapeneko eskalada ikastaroa antolatu du Sakanako Mankomunitateak irailaren azken asteburuan. Helburua haitzan eskalatzeko oinarriko ezagupen eta teknikak lortzea da. Irailaren 9an teoria azalpenak eskainiko dira Mank-eko Lakuntzako egoitzan, 18:00etatik 20:00etara, eta irailaren 29an eta 30ean eskalada praktikak egingo dira Uharte Arakilen edo San Fauston (Eraul), 10:00etatik 18:00etara. Monitorea Ion Gurutz Lazkoz izango da. Prezioa 39 eurokoa da. 12 urtetik aurrerakoek eman dezakete izena, irailaren 26ra arte (948 464 866, [kirolak@sakana-mank.eus](mailto:kirolak@sakana-mank.eus)).



CBASK

## 3x3 Street Basket, aterpean

**SASKIBALOIA** Saskibaloia kalera atera eta egun polita pasatzea, hori da CBASK-ek Altsasu 3x3 Street Basket Txapelketarekin lortu nahi duena. Baina larunbateko ekaitzengatik ekitaldia Zelandin egin behar izan zuten. "Bederatzi talde osatzea lortu genuen, eta final estuan, Aguraingo Tiburoiak taldea gailendu zen" azaldu dute CBASK-etik.



Ivonne Irakurkide saio batean. BIAK BAT

**Erkuden Ruiz Barroso SAKANA**

Euskaraz irakurtzen zaletu, txakur baten laguntzarekin. Hori da Biak Bat elkarteak eta Sakanako Mankomunitateak proposatzen dutena Irakurkide Txakurrek lagundutako irakurketa tailerrekin. Josune Azpiroz Imaz elkarteko psikologoak aipatu duenez, "oso ezaguna da animaliek prozesu terapeutikoan, hezkuntzan eta aisialdian duten eragin positiboa". Animaliekin lagundutako irakurketari dago-kionez, azaldu du oso lotuta daudela irakurketa saioak eta animaliak. Are gehiago, animaliak saio horietan egoteak "motibazioa, irakurtzeko gozamen, lan giroa eta irakurketa prozesuan garapena" dakartzatza.

**Animaliak lagun**

Hainbat ikerketak diotenez, irakurtzeko trebetasunaren garapenean eta irakurlearen gozamenean eragiten dute animaliek. "Beckerrek 2010ean eta De Naughelek 2012an zuzendutako ikerketek diote, esaterako, txakurrek, kasu honetan, emozio positiboak sortzen dituztela. Animalia presentziak mesede egiten dio irakurketa positibizatzeke lanari, batez ere irakurtzea oso gustuko ez duten pertsonen artean". Tailerretako parte hartzaileek euskarazko testuak irakurtzen dituzte, ozen, "eta, normalean, hanka sartzeko beldurra edo ozen irakurtzean frustratzeko beldurra dauka jendeak. Halako oztopoekin egiten

# Txakurrak ez daki irakurtzen, eta ipuina kontatu behar zaio

2019. urtean jarri zituen martxan Biak Bat elkarteak Txakurrek lagundutako irakurketa tailerrak, eta aurten euskarazko irakurketa sustatzeko helburu berriarekin Sakanako Mankomunitateko Euskara zerbitzuarekin Sakanako herri guztietara iristea nahi dute

dugu topo. Haur eta gazteek epaitzen ez duen izaki bat aurkitzen dute txakurrarengan, eta oztopoak desagertzen dira".

2019. urtean sortu zituzten Irakurketa euskaraz sustatzeko Txakurrek lagundutako irakurketa tailerrak, eta taldearen edo norbanakoaren adinetara eta beharretara egokitutako jardura espezifikoez osatuta daude. Saioak sei eta hamabi urte bitarteko haurrei bideratuta daude, batez ere, Lehen Hezkuntzako haurrei. Sakanako Mankomunitatearekin batera egiten

**"TXAKURREI  
IRAKURTZEAK  
EMOZIO POSITIBOAK  
SORTZEN DITU"  
JOSUNE AZPIROZ**

dituzten saioetan aurretik izena eman behar da.

Halere, pauso bat harago joan nahi izan dute, eta programak dituen helburuez gain, euskarazko irakurketa sustatzeko modu polita zela iruditu zitzaizen Biak Bat elkarteak, "eta aurten, lehen aldiz, Sakanako Mankomunitatearen euskara zerbitzuarekin batera, Sakanako herri guztietara - txiki zein handi - eraman nahi ditugu saioak". Dagoeneko Olaztiko, Ziordiko eta Irurtzongo liburutegietan egin dituzte tailerrak. Ikasturte hasierarekin, Txakurrek lagundutako irakurketa tailer gehiago egingen dituzte Sakanako zehar. Hurrengo irailaren 18an, astelehena, 17:00etan, Urdiaingo liburutegian. Altsasuko eta Arbizuko liburutegietan eta Olaztiko Herri Eskolan ere saioak egingen dituztela aurreratu du Azpiroz.

Biak Bat elkarteko egoitzatik kanpo egiten dituzten saioetan Ivonne eta Lua txakurrek parte hartzen dute; eta saioak egoitzan egiten dituztenean, katua erekin.

**Saioak**

Saioaren garapenean "uneoro" dago presente animalia, eta hark parte hartzeak haurrak eta gazteak "motibatzen eta ikusminarekin etorrarazten" laguntzen duela esan du Azpiroz. "Giro lasaia, konfiantzazkoa eta segurua sortzen laguntzen du". Bestetik, laguntza moduan, eta uler-

**"GIRO LASAIA,  
KONFIANTZAZKOA ETA  
SEGURUA EGITEN  
LAGUNTZEN DUTE"  
JOSUNE AZPIROZ**

men jardueratan galderak "egiten" laguntzen dute animaliek: "Zoruan dauden galderak ahoarekin hartu eta haurrei eskura ematen dizkiete, edota zangoarekin bi galderen artean aukeratzen dute, adibidez". Saioetan parte hartzen duten hau eta gaztetxoek esaten zaie txakurrek ez dakitela irakurtzen eta ipuina irakurri behar zaizela.

Txakurrek lagundutako irakurketa tailerreko saioak ordu bateko iraupena du, eta hiru ataletan antolatzen da: hasiera, garapena eta amaiera. "Hasieran ekintzari sarrera ematen diogu eta banan-banan txakurra agurtzeko aukera dute. Garapenean txakurraren ondoan ipuina ozen irakurtzen dute, banan-banan, eta ulermen galderak egiten dira. Bukaera agurtzeko momentua da, animaliei ura jartzen diete eta abar". Balioetan oinarritutako liburuak eta gaiak lantzen dituzte: laguntasuna, elkartasuna, birziklapena, inguruaren zainketa, hezkuntza emozionala... "eta, noski, animalien errespetua". Arkatz liburu dendaren laguntza izaten dute liburuak aukeratzeko orduan.

Irakurkide programaren helburuak asko direla azaldu du Azpiroz: txikitatik euskaraz irakurtzeko zaletasuna sustatzea animaliekin lagundutako jardueren bidez; irakurtzeko parte hartzaileen motibazioa eta gozamenaren areagotzea, aisialdirako eta gozamenarako espazio positiboen alde egitea euskaraz irakurketa protagonista izanik; txakurrekin kontaktarekin bidez euskaraz irakurtzeko eta erabiltzeko emozio positiboak piztea eta irakurketa eta beste izaki bizidun baten kontatuarekin bidez emozio eta balio hezkuntza jarduerak garatzea.

2019ko Altsasuko Aisiz Blai programan jarri zuten lehenengo aldiz martxan Txakurrek lagundutako irakurketa tailerrak eta hasieran parte hartzaileei irakurtzea gustuko zuten galde-tuetan; erantzuna ezezkoa izan zen. Ondoren, txakurrekin irakurtzea gustuko zuten galdetuean "ez zekitela" erantzun zuten. "Saioak bukatzean berriro galdetu eta lehen erantzuna bera izan zen; ez zutela gustuko irakurtzea. Baina bigarrenengoan, aldiz, baiezko borobila izan zen: gustuko zuten txakurrei eta txakurrekin irakurtzea".

# Gonzalez Aziluren musika hilezkorra

Agustin Gonzalez Azilu konpositore altsasuarra abuztuaren 15ean hil zen. 94 urte zituen. XX. mendeko musikari garrantzitsuenetariko bat izan da, 1952ko musikagileen belaunaldiko nabarmenarikoa. Hainbat sari jaso ditu

**ALTSASU**  
Musika garaikidearen ordezkari nabarmenetako bat izan da Agustin Gonzalez Azilu musikari altsasuarra. Abuztuaren 15ean hil zen, Madrilen, 94 urte zituela. 1952ko musikagileen belaunaldiko musikari garrantzitsuenetako bat izan da, eta bi aldiz jaso zuen Espainiako Musika Sari Nazionala: 1971ean eta 1998an. 2009an Kulturaren Vianako Printzea saria jaso zuen eta, urte berean, Madrilgo Goi Mailako Errege Kontserbatorioari Urrezko Domina jaso ere jaso zuen. Nafarroako Unibertsitate Publikoko *Honoris Causa* izendatu zuten 2011n.

Gonzalez Azilu Altsasun jaio zen 1929ko otsailaren 18an. Bertan hasi zituen musika ikasketak Luis Tabernarekin batera, garai horretan herriko organista zena. Herriko bandan izan zuen lehen harremana musikarekin eta klarineta eta saxofoia jo zituen. Baina Bachen musikak mundu berri bati begiak ireki zizkion eta laster Iruñera joan zen ikastera. Bertan Fernando Remacha orduko Pablo Sarasate kontserbatorioiko zuzendariak altsasuarraren ahalmen sortzailea ikusi zuen eta laguntza eskaini zion.

21 urterekin Gonzalez Azilu Madrilera joan zen, soldaduska egitera, eta banda militarreko kide izan zen hainbat urtez. Irabazitako dirua musika ikasketak ordaintzeko erabili zuen. Madrilen geratu zen goi mailako kontserbatorioan ikasten. Musika Banda Zuzendarien Espainiako Gorputzeko oposizioa egin zuen eta plaza atera zuen, baina inoiz ez zuen horretan lan egin; musika ikasten jarraitzen zuen eta Madrilgo modako aretoetan saxofoia jotzen zuen. 1958an Kontrapunto eta Fugako Lehen Saria irabazi zuen.

1960an Vianako Printzea erakundearendako nafar konposi-



Agustin Gonzalez Azilu 2011n NUPeko 'Honoris Causa' izendatu zutenean. NUP

## KONPOSITOREAK EHUNDIK GORA LAN ETA HAMARNAKA PUBLIKAZIO IDATZI ZITUEN

toreei buruzko musikologia lanak idatzi zituen. 1960ko hamarkada zehar hainbat hobekuntza ikastaro egin zituen Parisen, Erroman, Venezian eta Darmstadtan. 1965 eta 1967 artean Madrilgo goi mailako Musika Kontserbatorioan praktiketako irakaslea izan zen eta 1966an musikari lotutako linguistikaren inguruko ikerketa lana egin zuen Ikerketa Zientifikoen Goi Kontseiluarentzat; hizkuntza eta musika uztartzeko modua ikertu zuen Gonzalez Aziluk. Gonzalezen musika ibilbidea soinu-errealitate berrien bilaketak markatu du. Bere obretan hari fin batek uztartzen ditu musika tonala eta atonala. Altsasuarrak musika garaikideko soinu objektiboekin eta elementu kulturalaren subjektibotasunarekin jolas egin zuen eta bere sormen lanetan askatasu-

nak eta zorroztasunak bat egiten dute. Obra konplexuak dira: "Bizitza tokatu zaizkidan une historiko lazgarrien modukoa".

### Soinu berriak

Ehundik gora lan eta hamarnaka publikazio idatzi zituen Gonzalez Aziluk eta obra ospetsuenetariko bat *Arrano Beltza* da. 1975 eta 1976 urteen artean sortu zuen bakarlarri-ahots lautokote eta ganbera abesbatza mistorako pieza. Joxean Artzeren *Laino guztien azpitik* euskarazko testuan oinarritu zen pieza sortzeko.

Konpositore altsasuarrak Espainiako Konpositore Sinfonikoen kide sortzailea izan zen 1974an, eta bere ibilbidean zehar hainbat sari jaso zituen: Samuel Ross saria 1962an; bitan jaso zuen Espainiako sari nazionala, 1971an *Oratorio Panligüstico* obragatik eta 1998an bere ibilbideagatik; Madrilgo Goi Mailako Kontserbatorioaren Urrezko Domina eta Nafarroako Viana Printzea Saria, Nafarroako kultura sari nagusia, 2009an, eta 2011n Nafarroako Unibertsitate Publikoak *Honoris Causa* Doktore izendatu zuen.



BAZTERRETIK

ANNE AZKONA UNANUA

## Etxean elikagaiak modu seguruan gordetzeko aholkuak

Kontsultan elikagaiak manipulatzeko momentuan akats ugari ematen direla ikusi dudanez, eta kasu gehienetan elikadura toxiinfekzioak sortzearen

arazo ohikoenetarikoa denez, irudi honetan elikagaiak etxeko izozkailuan nola banatu beharko liratekeen adierazi nahi izan dut.



## Zirkua plazara

Beste urte batez, eta dagoeneko 22 dira, Ezin Zailagoa Nafarroako Zirkua Jaialdia Altsasura iritsi zen, festaurreko egitarauari hasiera emanez. Iortia zabalgunean hiru zirkuko konpainia ikusteko aukera egon zen: niMu konpainiaren *Jacuzzi* lana, Planeta Trampoliren *Back2classic* eta Circo Los konpainiaren *Kasumay*.

**Erkuden Ruiz Barroso** ALTSASU

Abuztuaren 18ko gau bat zen. Sargoriko egun bat izan zen, eta beroa egiten zuen. Altsasuko Foru plazan, Haritza tabernaren aurrean, kutxa batzuen gainean egindako eszenatoki inprobisatu batean, Inixio Amillano Casteigek bakarrizketa saio arrakastatsua egin zuen. Herrian egiten zuen lehenengo monologoa zen, "egia esan, ez genuen espero hainbeste jende etorriko zenik". **Noiz hasi zinen bakarrizketak egiten?**

Duela urte eta erdi inguru. Granadan bizi naiz eta antzerki eskola batean izena eman nuen. Bertan *stand up comedy* ikuskizunak egiten dituzte, eta egun batean *show* batean parte hartzea proposatu zidaten. Proposatu zidatenean ez nuen pentsatzen hainbeste disfrutatuko nuenik, baina ausartu nintzen eta dagoeneko hiru saio egin ditut; bi Granadan eta Altsasukoa.

**Zugan zerbait ikusi zuten?**

Ikuskizuna aurkezten duten bi pertsonak proposatu zidaten, beraien ustez nahiko grazia daukadalako. Esan zidatenean pentsatu nuen: "Haiek uste badute...".

**Zer da bakarrizketa bat?**

Azken finean, jendeari mundua nola ikusten duzun azaltzea da eta, bide horretan, saiatu behar zara jendeak barre egitea. Baina zerbaiten inguruan zure iritzia ematea da; ez da besterik.

**Eta bakarrizketak egiten ikasten da?**

Bai, badauka nik usten nuena baina zientzia gehiago. Badaude liburua eta abar, eta pare bat irakurri ditut. Badauka bere zientzia.

**Altsasuren kasuan, zein izan zen zure ikuspuntua?**

Dagoeneko datorren urtean Grand Prix telebista saioan agertzeko proposamena luzatu nuen. Ea zer lortzen dugun.

**Zer da umorea?**

Zientzia bezalako bat dago atzean ere: komediaren esentzia jendea harritzea da. Jendeak ez duenean zerbait espero eta hortik jotzen duzunean, barrea sortzen da. Irakurri nuenez zerbait neurologikoa da.

**Zerbait berezia behar da bakarrizketa bat egiteko?**

Lotsarik ez izatea. Gustuko duzun testu bat baldin badaukazu, ez da hain zaila.

**Testuak zuk sortzen dituzu? Nola prestatzen dituzu?**

# "Jendeak ez duenean zerbait espero barrea sortzen da"

**INIXIO AMILLANO CASTEIG BAKARRIZKETARIA**

Duela urte eta erdi inguru hasi zen ingeniari informatiko altsasuarra 'stand up comedy'-aren munduan. Abuztuan Altsasun saioa egin zuen



Inixio Amillano Casteig bakarrizketari altsasuarra.

Nik egiten ditut, bai. Eguneroko esperientzietan oinarritzen naiz. Ideia batzuk pentsatzen ditut, eta gero ideia bakoitzeko txiste bat pentsatzen dut. Agian gero ideia hori ez da hain barregarria, orduan, ez duzu ateratzen, eta listo.

**"INGENIERITZA ETA UMOREA BI BIZITZA IZATEA BEZALA DA; HANNA MONTANAREN ANTZERA"**

**Txistek testeatzen dituzu?**

Ez. Azkenean, txiste asko ateratzen dira. Agian pentsatzen duzu txiste bat oso barregarria izango dela, eta gero publikoaren aurrean ez da hala izaten. Beste batzuk zuretzat ez dira hain barregarriak eta publikoarendako oso barregarriak dira. Granadan egiten ditugun showak testuak testeatzeko dira, hemengo ez nuen aurretik probatu.

**Inprobisaziorako tokia dago?**

Momentuz nik dena idatzita eramaten dut, baina badaude umoregileak bere ikuskizuna publikoarekin hitz egiten eta interaktuatzeko oinarritzen dutenak. Baina nik, momentuz, %90 prestatuta eramaten dut.

**Granadara joan aurretik antzerkia egiten zenuen?**

Altsasuko institutuan hasi nintzen. Egundak antzerki irakasleak parte hartzea proposatu zidan, eta Granadan gertatu zitzaidanaren antzeko zerbait gertatu zitzaidan orduan; berak uste bazuen ongi egin nezakeela, aurrera. Unibertsitatean jarraitzen saiatu nintzen, baina ez zegoen tokirik, eta Granadan berreskuratu dut. Beti izan dut bueltatzeko nahi hori.

**Zer ikasi duzu?**

Ingenieritza informatikoa, eta horretan lan egiten dut ere. Ez du bakarrizketaren munduarekin inolako zerikusirik.

**Eta nola uztartzen dira ingenieritza informatikoa eta bakarrizketak?**

Oso-oso desberdinak dira. Pixka bat bi bizitza izatea bezala da: Hanna Montana eta Miley Cyrusen antzera. Horrelako zerbait. Zaletasun bat da, hobbie bat bezala egiten dut, eta disfrutatzen dudak bitartean jarraituko dut. **Nola sortu zen Altsasuko saioa egiteko aukera?**

Bakarrizketan esan nuen bezala, Haritza ia nire bigarren etxea da. Granadatik bueltatu nintzenean, bigarren egunean, Iñakik (tabernako jabeak) proposatu zidan. Bromptan bezala esan zidan. Esan nion zerbait idazten saiatuko nintzela, eta azkenean gauza handiagoa egiten joan zen.

**Urduri zeunden?**

Egia esan, ez. Pentsatzen nuen urduri egongo nintzela, baina ez nintzen urduritu. Zero. Jendeari hitz egitera bezala ateratzen, eta gaizki ateratzen bazen ez zen ezer gertatzen. Askotan zerbait gaizki ateratzen denean ere barregarria da.

**Nolakoa izan zen feedback?**

Oso-oso ona. Ez nuen espero hain ona izatea. Bi gauza daude bakarrizketa egiten duzunean: jendeari feedbacka eta zurea, hau da, egin duzunarekin pozik egotea. Nire helburua zen egitea eta gustura gelditzea. Baina mota eta adin askotako jendea egon zen eta asko gustatu zitzaieela esan didate. Batzuek esaten zidaten: "Niri gehien gustatu zaidan zatia hau izan da", beste batek beste zati bat esan dit... Hori oso polita da.

**Bakarrizketari gustukorik duzu?**

Berez, ez. Ez ditut bakarrizketa asko ikusten, egia esan. Baina mundu honetan sartu ninduten pertsonak inspiratzen naute. Ez dira ezagunak, baina Granadan duten txoko txiki horretan erreferente dira; nire erreferenteak dira.

**Saio gehiago aurreikusten dituzu?**

Bai, Granadan beste bat egingo dut eta Haritza tabernan beste bat egiteko hitz egiten hasi gara...

**Eta euskaraz egitera animatuko zara?**

Bai. Euskaraz egitea pentsatu nuen, baina ez genekien zenbat jende etorriko zen, euskaldunak izango zireneko edo ez... Tarteka egitea ez legoke gaizki.

**Gertukoek zer esan dizute? Egon ziren?**

Lagunek asko gustatu zitzaieela esan didate. Amak ere. Aita ez zen etorri... frontoira joan zelako.

## 11 GALDERA



2023ko Ziordiko Jai Batzordeko kideak.

# "Ziordiar guztiengana iristen saiatsu gara"

Errekartean elkarteko sei kidez osatutako Jai Batzordeak antolatzen ditu Ziordiko festak. Aurten Imanol Urra, Alaitz Ruiz de Luzuriaga, Iñigo Otxoa, Maider Perkaz, Sandra Perez eta Asier Ormazabal arduratu dira festen antolakuntzaz

## Erkuden Ruiz Barroso ZIORDIA

### 1 Jai Batzorde batek antolatzen ditu Ziordiko festak. Nola osatzen da batzordea?

Errekartea elkartearen egoitza udalarena da, eta udalak baldintza batekin utzi zion elkarteari: elkartea urtero festak antolatu behar ditu. Orduan, elkarteko bazkidea bazara, ustez herri ia osoa garelara, zenbait urtetik behin festak antolatzea egokituko zaitu. Urtero jai batzordea osatzeko sei kide aukeratzen dira.

### 2 Noiztik antolatzen ditu festak elkarteko jai batzordeak?

Elkartea sortu zenetik, 1980ko hamarkadan, duela 40 bat urte. Hori da udalak jarri zuen baldintza. Berdin dio zein alderdi dagoen udalean; baldintza hori betetzen da.

### 3 Ez da oso ohikoa, ezta?

Ez. Urdiaindarrekin hitz egiten esaten zuten udalak antolatzen dituela festak; Altsasun ere udalak antolatzen ditu eta gero peñak eta abar daude... Agian

bakarrak gara. Gaztetxeak ere bere egitaraua prestatzen du. Baina beste guztia guk.

### 4 Udalak aurrekontu bat ematen dizue, eta horrekin festak antolatu behar dituzue.

Hori da, bai. Mirariak egiten, egia esan. Aurten musika aurkitzea asko kostatu zaigu. Aurrerapen handiarekin jarri ginen harremanetan taldeekin, baina oso garesti dago dena. Jatekoari garrantzia handia eman diogu ere: herri afaria, herri bazkaria, kalderete lehiketa, haurren bazkaria, jubilatueko luntxa... Gauzak asko garestitu dira, baita kultur arloan ere, eta aurrekontutik pasatu gara eta gehiago eskatu behar izan dugu, bestela, ezinezkoa zen. Guztira, 29.194 eurokoa izan da.

### 5 Herrian gustu eta adin desberdinetako jendea dago, nola antolatzen dira festak?

Herritar guztiengana iristen saiatsu gara. Egia da egitarauan nahiko markatuta dagoela: as-

teazkena bezpera izan zen, hurrengo egunean haurren eguna eta, beraz, haurrei bideratutako ekimenak egon ziren eta gaur, ostirala, jubilatuen eguna da

eta, beraz, beraiendako ekimenak nagusi izango dira. Hori betikoa da, eta beste egunetan anitza izatea saiatsu gara. Goizei bizitza ematen saiatsu gara ere, azken urtetan pixka bat galduta zegoela, eta ekimen desberdinak antolatu ditugu goizetan ere festak direla ikusteko. Kalderete lehiketa oso arrakastatsua izan da, eta kirola ere presente dago: pilota eta txirrindularitza probak sartu ditugu. Baina oso zaila da.

### 6 Zenbat denbora egon zarete festak prestatzen?

Denbora asko izan da. Otsailean biltzen hasi ginen, eta datozenei esango diegu lehenago biltzen hasteko, urrian edo azaroan, gehienbat musikagatik. Nahi genuen talde ezagunen bat lortzea, baina ezin izan dugu.

### 7 Festak irailean izatea ona edo txarra da?

Agian kalte egiten du. Jende askok jaiegunak eta oporrak hartzen ditu, baina haurren ostegunean ikastetxean hasi dira eta azkenean astegunetan nabaritzen da.

### 8 Nobedaderik?

Haurrendako nahiko ekimen antolatu ditugu eta jubilatueko bazkariaren orde luntxa bat eta Nafarroako josten emanaldia antolatu dugu, gaur egungo jubilatuek ez dutelako nahi jubilatuta sentitu.

### 9 Festak berdin gozatzen dira antolakuntzako kide zarenean?

Ez! Inola ere ez. Ziordiko festak izugarri gustatzen zaizkigu, eta aurten lehenbailehen pasatzea nahi dugu. Azkenean, dena antolatzen dugu eta, esaterako, herri afarian guk zerbitzatzen dugu ere, egunero gazta eta ardoa banatu behar dugu eta seiak egon behar gara... Gauza asko dira. Seien artean antolatu gara tarte libreren bat izateko; disfrutatzen saiatuko gara.

### 10 Kritikak jaso dituzue?

Zorion mezuak, baita kexak ere. Orokorrean zoriondu gaituzte: edukiengatik eta egitarauaren diseinuagatik. Jendea orokorrean pozik dago. Kexak, azkenean, betikoak dira: herri txiki bat da, eta "urterokoa" dela esaten dute. Hori beti entzungo da. Egia da urteroko gauzak dardela, baina saiatsu gara gauza desberdinak egiten ere.

### 11 Zuek bota zenuten txupinazoa.

Seiak batera lehenengo, eta gero bakoitzak suziri bat. Talde lana izan da, eta taldean bota genuen. Udalarekin hitz egin genuen aurreko norbait berezia-edo auke-ratzeko, baina ez genekien nori esan. Orduan, pentsatu genuen hoberena jai batzordeak botatzea zela, herritar guztien izenean. Ziordiar guztiak direlako bereziak.

**Dagoeneko  
MARTXAN  
GAUDE  
zatoz!**

**gk** DISEINUA ETA KOMUNIKAZIOA **fo**

619 821 436 | Foru plaza, 23-1. Altsasu  
info@gkomunikazioa.eus | www.gkomunikazioa.eus